KIROLETAKO TEKNIKARIA	B	A2	24	22	0	7.350,42	0,00	7.350,42	5.392,82	11.560,97		763,98	17.717,77	25.068,19	7.832,45	626,78	200,91	33.728,33
KIROLETAKO ADM.LAG.	D	C2	16	9	0	4.593,26	0,00	4.593,26	3.111,38	6.038,39		431,97	9.581,74	14.175,00	4.556,70	429,80	200,91	19.362,41
2	ALDI BATERAKO BITARTEKO FUNTZ.					11.943,68	0,00	11.943,68	8.504,20	17.599,36	0,00	1.195,95	27.299,51	39.243,19	12.389,15	1.056,58	401,82	53.090,74
III. FUNTZIOA GUZTIRA						23.704,35	0,00	23.704,35	15.201,29	31.022,78	0,00	2.198,13	48.422,20	72.126,55	23.744,24	2.095,24	723,28	98.689,31
KONTRATAZIO TEKNIKARIA	A	A1	24	22	0,79	17.001,46	516,94	17.518,40	10.785,64	20.821,32		1.707,13	33.314,09	50.832,49	16.367,81	1.535,10	401,82	69.137,22
1	ALDI BATERAKO LAN-KONTRATUD.					17.001,46	516,94	17.518,40	10.785,64	20.821,32	0,00	1.707,13	33.314,09	50.832,49	16.367,81	1.535,10	401,82	69.137,22
IX. FUNTZIOA GUZTIRA						17.001,46	516,94	17.518,40	10.785,64	20.821,32	0,00	1.707,13	33.314,09	50.832,49	16.367,81	1.535,10	401,82	69.137,22
GUZTIZKO OROKORRAK						234.701,61	516,94	235.218,55	91.207,71	157.230,12	0,00	12.445,79	260.883,62	496.102,17	166.540,61	15.645,24	5.578,61	683.866,63

4.9.1.- PERTSONALAREN ERANSKINA.-.- ORDAINKETAK
PRESUPUESTO 2021

LANPOSTUA	LT	OT	DM	MAIL	HIRURT	OINAR. ORD	OINAR. HIRURT.	OINAR. ORD	DESTINUA	ESPEZ. T.O.	ESPEZ. D.B. ETA MUSHKA ESKOLAKO OSAGARR	BESTELAKO OSAGARRIAK	OSAGARR. ORDAIK	ORDAIN SAR.	GIZ. SEG.	ELKARKID. GEROA	Segurua	KOSTU GLOBALA
4.9.4.3. ALDARTEKO PERTSONALAREN ORDAINKETAK																		
912.00. GOBERNU ORGANOA																		
ALKATE AHOJKULARI TEKNIKO	B	A2	0	12	2	31.710,56	1.067,36	32.777,92				1.356,04	1.356,04	34.133,96	11.465,56	1.253,56	401,82	47.254,90
ALKATEAREN IDAZKARIA	D	C2	0	12	0	31.710,56		31.710,56				996,80	996,80	32.707,36	10.875,70	859,60	401,82	44.844,48
						63.421,12	1.067,36	64.488,48			0,00	2.352,84	2.352,84	66.841,32	22.341,26	2.113,16	803,64	92.099,38
IX. FUNTZIOA GUZTIRA						63.421,12	1.067,36	64.488,48	0,00	0,00	0,00	2.352,84	2.352,84	66.841,32	22.341,26	2.113,16	803,64	92.099,38
GUZTIZKO OROKORRAK						63.421,12	1.067,36	64.488,48	0,00	0,00	0,00	2.352,84	2.352,84	66.841,32	22.341,26	2.113,16	803,64	92.099,38

4.9.4.4. KORPORAZIO ORGANUEN ORDAINKETAK

912.00. GOBERNU ORGANOA	DEDICAC	NIV	MARCO															
ALKATE-LEHENDAKARIA	100%	0		44.473,94	44.473,94	0,00								44.473,94	14.476,27	0	401,82	59.352,03
ZINEGOTZIA: OPOSIZIOAN GEHINGC	100%	0		37.415,56	37.415,56	0,00								37.415,56	12.178,76	0	401,82	49.996,14
ZINEGOTZIA: OPOSIZIOAN GEHINGC	100%	0		37.415,56	37.415,56	0,00								37.415,56	12.178,76	0	401,82	49.996,14
ZINEGOTZIA	100%	0		37.415,56	37.415,56	0,00								37.415,56	12.178,76	0	401,82	49.996,14
ZINEGOTZIA	100%	0		37.415,56	37.415,56	0,00								37.415,56	12.178,76	0	401,82	49.996,14
ZINEGOTZIA	75%	0		28.061,67	28.061,67	0,00								28.061,67	9.134,07	0	401,82	37.597,56
ZINEGOTZIA	25%	0		9.353,89	9.353,89	0,00								9.353,89	3.044,69	0	401,82	12.800,40
ZINEGOTZIA	50%	0		23.099,30	23.099,30	0,00								23.099,30	7.518,82	0	401,82	31.019,94
ZINEGOTZIA	50%	0		23.099,30	23.099,30	0,00								23.099,30	7.518,82	0	401,82	31.019,94
ZINEGOTZIA	50%	0		23.099,30	23.099,30	0,00								23.099,30	7.518,82	0	401,82	31.019,94
													0,00					2.812,74
				300.849,64	0,00	300.849,64	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	300.849,64	97.926,53	0,00	6.830,94	405.607,11
IX. FUNTZIOA GUZTIRA				300.849,64	0,00	300.849,64	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	300.849,64	97.926,53	0,00	6.830,94	405.607,11
GUZTIZKO OROKORRAK				300.849,64	0,00	300.849,64	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	300.849,64	97.926,53	0,00	6.830,94	405.607,11

367.690,96

TOTAL GLOBAL	798,2	2.108.193,60	300.866,83	2.409.060,43	1.051.955,27	2.233.677,26	163.261,19	331.217,55	3.780.111,27	6.189.171,70	1.924.566,35	161.387,96	68.396,47	8.343.522,48
---------------------	-------	--------------	------------	--------------	--------------	--------------	------------	------------	--------------	--------------	--------------	------------	-----------	--------------

Lasarte-Oria, 9 de marzo de 2021

ALKATEAK



5. TXOSTENAK

5.1 KONTU-HARTZAILEAREN TXOSTENA

Ion Murua Guinea jaunak, Lasarte-Oriako Udaleko Funtsen Kontu-hartzaileak, Alkatetzak aurkeztutako 2021. urterako Aurrekontuaren espedientea ikusirik, eta abenduaren 19ko 21/2003 Foru-Arauaren 6.3 eta 14.4 artikuluetan xedatutakoa betez, ondoko txosten hau egin dut adierazitako ekitaldirako aztertzen ari garen Aurrekontuari dagokionez:

TXOSTENA

Alkate Lehendakariak 2021(e)ko ekitaldirako Sarrerren Aurrekontu Orokorra eratu du 35.722.781,51 euroko zenbatekoa egiten duena eta 35.675.336,12 euroko zenbatekoagatiko Gastuetako Aurrekontu Orokorra. Sarrerren eragiketa arruntengatik lortuko diren baliabideen zenbatekoa 22.033.984,90 €koa izango dira, eta Gastuenarena 22.010.334,33 €koa.

Aipatutako Aurrekontu Orokorrari buruzko azterketak ondokoa jarri du agerian:

- 1.- Aurrekontu hori osatzen duen espedienteak ondokoa biltzen duela:
 - Ekitaldian likidatu beharreko eskubideen zenbatetsitako Sarrerren Egoera-orriak.
 - Ordainketa nahiz konpromisozko obligazioei erantzuteko kredituak biltzen dituzten Gastuen Egoera-orriak.
 - Aurrekontuak gauzatzeko Arauak.
 - Memoria azaltzailea.
 - Eranskinak, aipatutako Foru Arauak 6. artikuluan zerrendatzen dituenak.
- 2.- **OREKA FORMALA.**

Dagozkion Aurrekontuetan aurreikusitako sarrerak bertan aurreikusitako gastuei erantzuteko nahikoak direla eta, era horretan, Aurrekontu Orokorrek ez duela hasierako defizitirik.
- 3.- Aurrekontuen egungo proiektua lantzeko, Udal-Entitateen Aurrekontua arautzen duen Foru Arauan nahiz udal-kontabilitate publikoko instrukzio berrian oinarritu gara. Hemengo araudi foralak eta estatukoak arautzen dituzte horiek biak, eta ondare-izaera duten kontabilitateko erregistroak sartu dira.

Aurrekontuarekin batera, Udaleko langile-plantilla onartzea tramitatzen da, bai halaber lanpostuen eta aipatu Aurrekontuari dagozkion Exekuzio Oinarrien arteko erlazioa.

- 4.- Ez da betetzen abenduaren 19ko 21/2003 Foru-Arauaren 14.5 artikuluan xedaturikoa, Aurrekontua dagozkion ekitaldiko urriaren 15a baino lehen Udalbatzarrari igortzeari buruzkoa.

5.- **SARRERAK EBALUATZEKO ERABILITAKO OINARRIAK.**

Diru-Sarrerren aurrekontuan ageri den espedientean, azken ekitaldietan inposizio-figurek izan duten hainbat bilakaeratik etorriko litzatekeen zenbatekoa ebaluatzen da. Gainera, aipatu inposizio-figuren baitan zenbait Hipotesi aplikatzen dira, nire ustez udalerrriaren egoera sozial, ekonomiko eta administratiboarekin bat egiten dutenak. Bestalde, aparteko izaera duten aurreikusitako ebaluazioak behar bezala identifikaturik eta, orokorrean, baloraturik daude, zuhurtziazko irizpide batez egon ere. Aztertzen ari den Aurrekontuaren sarrera-aurreikuspenak finkatzeko erabilitako oinarriak ondoko hauek dira:

*Hurrengo ekitaldian eta aurtengo ekitaldian iragan diren bederatz hila bateetan dagozkion errekursoaren bidez lortutako errendimendua. (1, 2, 3 eta 4 Kapituluak)

*Sortuko bide diren zerga-unitate berriak eta, zerga propioen kasuan, katastro-balioen gehikuntza. (1 Kapituluak)

*Borondatezko zergetan sortu beharko diren zerga egitateen kopurua. (1 eta 2 Kapituluak)

Hala ere, EIOZ zergaren kontzeptuan aurreikusitako sarrerak (376.728,05 euro) ziurgabetasun-mailako hirigintzako zenbait jarduketaren garapenean daude funtsatuak. Kapitulu honek aurreikusten duen zenbatekoa dela eta, zuhurtasunaren printzipioak eskatuko luke gastuak sarreraren atal honen bilakaeraren baldintzapean jartzea.

- * Ordenantza fiskalen eta prezio publikoen tasa, tarifa eta kuotak igotzeari buruz hartutako erabakiak. (1, 2 eta 3 Kapituluak)
- * Udal Finantzaketarako Foru Fondoko partaidetzaren eta Itundu gabeko Zergetako partaidetzaren gehikuntza zenbatetsiak. (4 Kapituluak).
- * Bestelako transferentzia eta dirulaguntzen -arruntak nahiz Kapitalekoak- ondoriozko ezaguna den edo espero den zenbatekoa. (4 eta 7 Kapituluak)
- * Ekarpenen kasuan izenpetutako hirigintza hitzarmen eta konpromisuak.

6.- ZORDUNTZEKO OPERAZIOEN EBALUAZIOA.

- a) Sarreraren egoerak bere baitan hartzen du maileguko operazio bat, ondorengo zenbatekoarekin: 12.065.505,52

Sarreraren Egoera-orrian azaltzen den kreditu-eragiketaren zenbatekoa, aurreikusitako inbertsio gastuen guztizkoaren eta ondoko errekurtsoen baturaren arteko diferentziaren emaitzazkoa da: eragiketa arruntaren soberakina (sarrerei buruzko 1, 2, 3, 4 eta 5 kapituluaren eta gastuei buruzko 1, 2, 3, 4 eta 9 kapituluaren arteko diferentzia), ondare-ondasunen besterenganatzearen produktua eta afektatutako finantzaketa. Halaber, kanpoko errekurtsu hau kuantifikatzeko, zorpetzeko posibilitateen tartea kontuan hartu da Zorpetze-Eranskina delako dokumentuan jasota dagoenaren arabera. Finantzazio hori ezartzen diren baldintzei lotua egongo da, eta plan finantzario bat egiteari, Aurrekontuen Estabilitateko Legeak xedatzen duenaren arabera.

Era berean, aparteko kreditu-eragiketa bat hitzartzea aurreikusten du, 23.806,82 euroko mugaraino, gastu arrunta finantzatzeko, Gipuzkoako toki-erakundeei aplikatu dakizkiekeen ezohiko eta presazko finantza-neurriei buruzko azaroaren 10eko 9/2020 Foru Dekretu-Arauan xedatutakoaren arabera.

- b) Aurreikusitako mailegu-operazioak 868.916,46 € inguruko karga finantzarioa eragingo luke. Zorpetzeko marjina aurtengo ekitaldirako % 67,09koa denez gero (hau da, 23.650,57€), operazioa berez ez-jasangarria litzateke finantzarioki, eta gastu arrunta murrizteko neurriak hartu beharko liriateke, sortutako zamari aurre egin ahal izateko aurrezpen handiagoa lortze aldera.

- c) Amortizazioaren eta interesen finantza-karga kalkulatzeko, Gipuzkoako Foru Aldundiak azken urtean Gipuzkoako Lurralde Historikoan sinatu diren maileguen baldintzei buruz emandako datuak hartu dira kontuan. Etorkizuneko interes-tasa urteko %0,01 izango dela estimatu da.

Eskura ditugun datuetatik eta kontuan harturik, maileguak ituntzeko operazioak, 868.916,46 €ko karga finantzarioa ateratzen da, %3,94 ingurukoa.

- d) Indarrean dagoen araudiaren arabera (2/2004 Legegintzako Errege Dekretua, Toki Ogasunak Arautzen dituen Legearen testu bategina onartzen duena (48. artikulutik 55.era) eta Estatuaren 2013rako Aurrekontu Orokorrei buruzko 17/2012 Legea (azken xedapenetako 31a)), toki-erakundeek ezin izango dute epe luzeko kreditu-eragiketa berririk hitzartu inbertsioak finantzatzeko, honako bi kasu hauetako edozein gertatzen denean:

- * Aurreko ekitaldia aurrezki garbi negatiboarekin likidatu dutenean
- * Toki-administrazioa osatzen duten erakundeen kapital biziaren bolumen osoa, modu kontsolidatuan kalkulata, likidatutako sarrera arruntaren %110 baino handiagoa denean.

Azken ekitaldiko likidaziotik eratorritako aurrezki garbia positiboa da, 4.310.957,96 eurokoa. Bestalde, kapital biziaren bolumen finkatua, proposatutako eragiketa barne, guztira 12.089.312,34 eurokoa da, eta ez du likidatutako diru-sarrera arrunten %110 gainditzen (24.157.645,13€). Ondorioz, Udalak aurreikusitako eragiketa hitzartu ahal izango du, aurreko b) atalean xedatutakoari kalterik egin gabe.

e) Finantza-tutoretzako organoaren baimena beharko da kapital biziaren bolumen osoak (12.089.312,34€), modu kontsolidatuan kalkulatuta, likidatutako diru-sarrera arrunten %75 (16.525.488,68€) gainditzen duenean, baina %110 gainditu gabe.

Ondorioz, hitzartu beharreko mailegu-eragiketak ez du Gipuzkoako Foru Aldundiaren aurretiazko baimenik beharko, haren zenbatekoak ez baitu gainditzen azken likidazioko eskubide arrunten %75, eta inola ere ez eragiketa arruntengatik dauzkagun baliabideen %110.

f) Aipatutako 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren 52.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, udalbatzarra, gehiengo osoz,, izango da aurreikusitako epe luzeko kreditu-eragiketa ituntzeko organo eskuduna, haren zenbatekoak ez baitu gainditzen aurrekontu honetan aurreikusitako baliabide arrunten %10.

7.- KREDITUEN NAHIKOTASUNA.

➤ Gastu-aurreikuspenak zehazteko erabilitako oinarriak honela osatzen dira: azken ekitaldietan jasan diren gastuen arabera eta proposamenean ezartzen diren Hipotesi espezifikoaren aplikazioaren arabera.

➤ Aztertzen ari den Aurrekontuan, derrigorrezko gastuei (zor galagarriak, zentsuak, pentsioak, finantza-kargak; derrigorrezko izaera duten zerbitzugintzazkoak, pertsonal, bulegoko material eta geletakoak; Entitateari ezarritako zerbitzuak ordaintzera destinatutakoak, hitzarmen edo alde aurretik hartutako konpromisuetatik eratorritakoak; eta behar eta premia handiko obra eta instalazio enekuzioari dagozkionak) aurre egiteko beharrezkoak diren kredituak kontsignatzen dira.

* Bestalde, eta lur-zoruaren udal-ondarea legez osatu behar duten ondasun eta baliabideei dagokienez, oraingo araudiak ezartzen du ezen ondasun horretatik eratorritako diru-sarrerak arauan izendatzen diren helburuetarako bakarrik xedatu ahalko direla, eta hartan adierazitako eta espediente honen 4.8 eranskinean jasotako gastu zehatzak gauzatzeari lotuak daude.

Lortutako diru-sarreraren eta horiek lehen aipatutako gastu zehaztetara xedatzearen arteko oreka lau urteko epean egin behar da; gure kasuan, urte horiek agintaldi bat osatzen duten urteek markatzen dituzte (2020-2023 LAURTEKOA).

Urtearen saldoa analizatuta 9.806.267,34 euroko SUPERAVITA sortzen da.

Beste aldetik, Saldo Globalak 10.163.828,78 euroko SUPERAVITeko egoeran gaudela dio eta obligazio hori bete dela analizatutako epean

8.- PERTSONALAREN GASTUAK

➤ Pertsonaleko Kapituluak, betekizun dauden lanpostuak ebaluatu egin dira, horiek 2021. urteko ekitaldian betetzea gertatuz gero ere aurre egin ahal izateko adinako zenbatekoan. LPZren bidez pertsonalean hobekuntzak egiteari aurre egiteko kreditu nahikoak ere sartu dira.

➤ Udal-langileei esleitutako ordainsari-banaketa ez dator bat indarreko araudiak aitortutako ordainsari-kontzeptuekin, eta, beraz, proposatutako banaketaren aurka **Erreparo** egiten dut.

➤ Plantillako zenbait plaza sortu dira, eta ekitaldian zehar bete daitezkeen lanpostuei aurre egiteko adinako diru-hornidura eman zaie (ikus 4.9.3 eranskina).

Lanpostuen zerrendan lanpostu berriak sortze hutsa ez da, berez, gaiari buruz indarrean dagoen araudiaren aurkako egintza bat, betiere araudi horrek horretarako jasotzen dituen baldintzak betetzen badira.

Baina, nire ustez, horren aurkakoa da aurrekontu zuzkidura, ez baitakar Lanpostuen Zerrendan eta aurrekontu zuzkiduran antzeko murrizketarik egitea, dela plazak amortizatzeagatik, dela beste doikuntza neurri batzuegatik. Horrenbestez, horrek urratu egingo lituzke Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko Legeak ezarritako mugak, Aurrekontuen Egonkortasunari buruzko 2/2012 Legeak ezarritako gastu jasangarriaren mugen barruan, horri buruz egin ditudan hainbat txostenetan behin eta berriz adierazi dudana bezala.

Lehenengo atal hau aztertzeko, komeniko litzateke bereiztea zer esan nahi duten eta zer adierazten duten Lanpostuen Zerrendak eta Udal Plantillak.

A) Lanpostuen Zerrenda.

Lanpostuen Zerrenda tresna tekniko gisa definiturik dago, eta haren bidez antolatzen dira langileak, zerbitzuen beharren arabera, eta hantxe zehazten dira lanpostu bakoitzean aritzeko eskakizunak eta haien ordainsari osagarriak (Auzitegi Gorenaren 2008ko urriaren 20ko eta 2014ko apirilaren 9ko Epaiak).

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 13. artikulua dioenez, «Euskal Administrazio Publikoek lanpostuen zerrenden bidez arrazionalizatzen eta ordenatzen dituzte beren barne egiturak, beren langile beharrak zehazten dituzte, lanpostuetan jarduteko eskatzen diren baldintzak definitzen dituzte eta horietako bakoitza sailkatzen dute».

Beraz, Lanpostuen Zerrendaren bidez diseinatzen da antolaketa eredua, langileak ordenatuz eta sailkatuz egin beharreko lan zehatza egiteko. Hori horrela, lanpostuen zerrenda berri bat onesteak irizpide horiei erantzungo badie, nahitaez egin behar da alde aurreko **balioespen objektiboa**, legez ebaluatu daitezkeen eta lanpostu bakoitzaren funtzioekin, zereginekin eta inguruabar bereziekin lotuta dauden elementuei buruz.

Eta, ildo horretan, Lanpostuen Zerrenda ez dago funtzionario publikoen ordainsariak mugatzeari lotuta.

Auzitegi Gorenak mantendu egiten du udal aurrekontuen eta lanpostuen zerrendaren desberdintasuna, errealitate desberdinak direla berretsiz. 2011ko maiatzaren 20ko Epaiak ezarritako premisa horretatik abiatuta eta Auzitegi Gorenaren 2008ko uztailaren 14ko Epaiak zehazturiko doktrinari jarraituz, deklaratu du udal aurrekontuak errespetatu egin behar duela Estatuko Aurrekontuen Legeak –eta ez beste dokumenturen batek– toki administrazioeko funtzionarioen ordainsarientzat urtero ezartzen duen gehikuntza. Hori dela eta, Lanpostuen Zerrenda onartzeak ez luke errespetatu behar hurrengo aurrekontu arauetan ezarritako ordainsari muga, baizik eta udal aurrekontua, litekeena baita Lanpostu Zerrenda ez gauzatzea urte bakarrean.

Ildo beretik doa Auzitegi Gorenaren 2011ko ekainaren 30eko Epaiare.

Hala eta guztiz ere, lanpostuen zerrendaren onespene orok egon beharko du oinarriturik lanpostuen balorazio egoki batean, edo lanpostu berriak sortzeagatik edo lehendik zeudenak funtsean aldatzeagatik arrazoituta; halaber, lanpostuen edukia eta konpentsazio ekonomikoa objektiboki egokitzea bilatzen duten ezagutza zientifiko, tekniko eta praktikoak aplikatuz egin beharko da.

Hori dela eta, toki erakundeek berek autoantolatzeke duten ahalmenaren barruan definitzen da lanpostuen zerrenda, eta plantillak, berriz, aurrekontu izaerako tresna bat dira, zeinen helburua baita lanpostu guztiak zerrendatzea, bakoitzari ordainsariengatik dagokion gastu totala inputatuta.

Euskal Funtzio Publikoaren Legearen 14. artikulua araberan, **aurrekontu zuzkidura duten lanpostu guztiak** sartu beharko dira lanpostuen zerrendetan, funtzionarioentzat, lan kontratuko langile finkoentzat eta behin-behineko langileentzat erreserbatutakoak bereizita.

Azaldutako horretatik guztitik ondoriozta dezakegunez, litekeena da Lanpostuen Zerrendak ekitaldiko aurrekontuan zuzkidurarik ez duten lanpostuak aurreikustea, baina ez *sensu contrario*; hau da, **ezin da zuzkitu krediturik aurrekontuetan, Lanpostuen Zerrendan sartuta ez dauden langileen postuetarako**.

Bestalde, Euskal Funtzio Publikoaren Legeak berak 17. artikuluan zehazten duenez, «Aurrekontuetan oharmandakoei egokituko zaizkie lanpostu-zerrendak, eta ez dute jasoko dagokion ekitaldirako aurrekontu-zerrendetan oharmandako kredituek erantzun ezinako diru-hornidura duen lanposturik».

Hortik ondorioztatzen dugu, lehen aipatutako epaiekin bat etorritik, Lanpostuen Zerrendak aurreikus ditzakeela indarrean dagoen aurrekontuan zuzkitu gabeko lanpostuak; hala eginez gero, aurrez finkatu beharko du zuzkidura zein ekitalditan zenbatesten den, eta zuzkidura hori ekitaldi horietan bete ahalko dela bermatu beharko du.

Bestalde, Euskal Funtzio Publikoaren Legearen 18. artikulua dioenez, «Egitura organikoan egin daitezten aldaketak onartzeak, aldi berean, horiei dagozkien lanpostuen zerrendak onartzea ere eskatuko du. Nolanahi ere, lanpostuen zerrenden bidez sortu, aldatu edo ezabatuko dira lanpostuak».

B) Aurrekontuko plantilla eta/edo plantilla organikoa

Euskal Funtzio Publikoaren Legearen 20. artikulua dioenez, «Funtzionario talde eta kidego bakoitzari eta lan-itunpeko langilegoa sailkatuko deneko kategoria bakoitzari dagozkien aurrekontu-zerrendak edo hornitutako lanpostu-zerrenda euskal Administrazio Publikoetako aurrekontuek finkatuko dituzte».

21. artikuluan xedatutakoaren arabera, funtzionarioei dagozkien aurrekontu plantillek ordainsari kontzeptuen arabera ordenatutako kreditu zuzkidurak zerrendatuko dituzte, eta, ondorioz, ezinbestekoa da hornituko den plazaren profila ezagutzeari, aipatutako ordainsari kontzeptuen arabera legokiokeen aurrekontu zuzkidura esleitzeko.

Hala ere, azpimarratu behar da toki ogasunen legerian ez dugula aurkitu berriazko loturarik plantillaren eta aurrekontuaren artean, ez baitu aipatzen dokumentu hori aurrekontua egitea eta onestea erregulatzen duenean. Hori horrela, plantilla ez da aipatzen eranskin gisa edo aurrekontuaren parte den dokumentu gisa, ez Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauan, ez Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen testu bategina onesten duen martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuan, ez Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen seigarren tituluko lehen kapitulua garatzen duen apirilaren 20ko 500/1990 Errege Dekretuan. Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzko Foru Arauaren 6.1.i) artikulua eta Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen testu bateginaren 168.1.c) artikulua soilik aipatzen dute toki erakundeetako langileen eranskina, baina eranskin hori ez da plantillaren dokumentu bera edukiarik eta formari dagokienez.

Langileen eta aurrekontuaren arteko lotura Auzitegi Gorenaren 2014ko apirilaren 9ko Epaian (314/2013 errekurtsioa) eta Funtzio Publikoaren Erreformatzeko Neurriari buruzko 30/1984 Legearen 14. artikuluan aurkitzen dugu.

Hortik ondoriozta genezake bi dokumentu ezberdinez ariko ginatekeela: batetik plantilla, berezko ezaugarriak dituena, eta, bestetik, aurrekontua. Hala ere, adierazi dugun bezala, indarrean dagoen araudiak beharrezkotzat jotzen du plantilla hori udaleko aurrekontuarekin batera onestea («... ren bitartez», «... dela eta»), tramitazio berari jarraituz. Hori hala izanik, Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen testu bateginaren 126.3 artikulua, plantilla aldatzeko, beharrezkotzat jotzen ditu aurrekontua aldatzeko izapide berak.

Dokumentu bereziak dira: langileen plantilla eta udal aurrekontua. Baina, hori hala izanda ere, ez dira onesten egintza berezietan, batera baizik; horietako bat (plantilla) aurrekontua onestearen «bitartez» edo hura onestearen «kariaz», eta haren ondorioak batik bat ekonomikoak dira.

Toki araubidearen alorrean indarrean dauden legezko xedapenen testu bategina onesten duen apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuaren 126.1 artikulua xedatzen duenez, plantilletan lanpostu guztiak sartu behar dira, behar bezala sailkatuta eta funtzionarioentzat, langile lan kontratudunentzat eta behin-behineko langileentzat erreserbatuta, eta urtero onetsiko dira aurrekontua onestearen kariaz, ELOren 90.1 artikuluan adierazitako printzipioak betez. Horiei erantsiko zaizkie aipatutako printzipio horiekin bat datozela egiaztatzen duten aurrekariak, azterlanak eta agiriak.

Aipatutako artikulua 1. zenbakiko bigarren apartatuak berariaz zehazten du **plantillek arrazionaltasunaren, ekonomiaren eta efizientiaren printzipioei erantzun behar dietela**; horrekin loturik, gaineratzen du ekonomiaren antolamendu orokorraren arabera ezarri behar direla **eta pertsonaleko gastuek ezingo dituztela gainditu ezarritako muga orokorrak**.

Horrela dio, era berean, ELOren 90.1 artikulua, seinalatzen baitu toki korporazio bakoitzak urtero onetsiko duela plantilla, aurrekontuaren bitartez, zeinak barnean hartu beharko baititu funtzionarioentzat, langile lan kontratudunentzat eta behin-behineko langileentzat erreserbatutako lanpostu guztiak.

Udal aurrekontua egitean gaineratzen den pertsonaleko eranskinak agiri bidez jasotzen ditu gastuen aurrekontuaren I. kapituluaren pertsonaleko gastuetarako jasotako diru izendapenak. Aurrekontuarekin batera doan Pertsonaleko Zerbitzuaren informazioa jasotzen du, lanpostuen zerrenda indibidualizatu batek osatzen duena, eta aldi berean langileen plantillan ere jasotzen da. Era berean, sekzioaren (hala badagokio), zentroaren, programaren eta arduradunaren arabera zerrendatzen da, kategoria profesionalaren araberrako ordainsari totalak xehetasunez adierazita.

Beraz, bi plantilla mota hauek bereiz daitezke:

- a) Plantilla organikoa, zeinak funtzionarioentzako plazen zerrenda jasotzen baitu, eskalen, azpieskalen, klaseen eta kategorien arabera sailkatuta. Pertsonal laboralari dagokienez, talde edo kategoria profesionalen arabera taldekatuta agertuko da.
- b) Aurrekontu plantilla: plantilla organiko kuantifikatua, hau da, aurrekontuan zuzkidura duena, eta, logikoa denez, bat etorri behar du plantilla organikoarekin, hori baita oinarria, gero haren hedadura ekonomikoa zehaztu ahal izateko aurrekontu plantillaren bitartez.

Azaldutako guztiagatik, modu berean iritsiko ginateke aurreko ataleko ondiora, alegia, lanpostuen zerrendak aurrekontuetako aurreikuspenetara egokituko direla, eta, beraz, ezingo dutela jaso dagokion ekitaldirako aurrekontu plantilletan aurreikusitako kredituekin bete ezinezko zuzkidura duen lanposturik.

C) Lanpostu Zerrenda eta aurrekontu plantilla eta/edo plantilla organikoa

Asturiasko Justizia Auzitegi Nagusiaren 2007ko abenduaren 20ko Epaiak adierazten duen bezala, **plantillak** zera zehaztu behar du, lehendik dagoen lanpostu bat bete behar duten **funtzionarioen edo langile lan kontratudunen kopurua**. Eta, ildo horretan, **Lanpostu Zerrendak** zehaztu behar ditu **lanpostua sortu**, definitu eta hura betetzeko baldintzak eta modua.

Horrenbestez, Lanpostuen Zerrenda korporazioaren langile beharrak planifikatzeko eta programatzeko tresna bat da, zeinetan ezar baitaitezke etorkizunean sortuko diren lanpostuak, haiek sortzeko baldintzak finkatuz eta zein ekitalditan sortu behar diren ezarriz.

Plantillak jasotzen ditu ekitaldiko lanpostu guztiak, eta bat etorri behar dute aurrekontuan aurreikusitako zuzkidurekin. Beraz, normalena eta ohikoena da plantillan jasotzea lanpostu guztiak, hutsik egon zein ez, eta haren kontsignazioak langile beharrak betetzeko beharrezkoa dena izan behar du.

Hala ere, Lanpostuen Zerrendan ez badira bereizten edo kontuan hartzen etorkizunean sortuko liratekeen lanpostuak, ulertu behar da plantillan eta aurrekontuan aurreikusi behar direla aurtengo ekitaldiari dagozkion lanpostu guztiak.

Horregatik, nire iritziz, Lanpostuen Zerrenda eta plantilla batera onetsi beharko lirateke, edo, hala badagokio, lehenago onetsiko balitz –inoiz ez geroago–, haren onespenez aurrekontuan eta dagokion plantillan kreditu egokia eta nahikoa egotearen baldintzapean geratu beharko luke.

Lanpostuen zerrendak etorkizunean sortzeko lanpostuak aurreikusten dituen neurrian, horiek ez dute egon behar ekitaldiko plantillan, eta ez dute aurrekontu zuzkidura beharrik.

Dokumentu bakoitzak kontzeptualki zer adierazten duen argitu ostean, aurkeztutako proposamena analizatzeari ekingo diot.

1) Lanpostuen Zerrenda aldatzea eta plaza berriak sortzea zerrenda horretan.

Onartzeko proposatutako espedienteak plantillako 8 plaza berri sortzea aurreikusten du.

Auzitegi Gorenaren 2014ko otsailaren 5eko Epaiak adierazten duenez, Lanpostuen Zerrenda ez da egintza antolatzaile bat, egintza ordenatu bat baizik, zeinaren bidez Administrazioa autoantolatzen baita, bere egiturako elementu bat atonduz, hala nola haren barruan dauden langileena. Horretatik ondorioztatzen da Lanpostuen Zerrenda egintza administratiboa dela, eta ez erregelamendua.

Hori hala den aldetik, hainbat baldintza bete behar ditu onetsia izateko, arauzkoak eta nahitaez bete beharrekoak.

Euskal Funtzio Publikoaren Legearen 15. artikulua xedatzen duenaren arabera, lanpostuen zerrendek nahitaez adierazi beharko dituzte lanpostu bakoitzerako hurrengo atal hauek:

- a) izena,
- b) zein departamenturi edo zuzendaritza zentrori dagoen atxikita,
- c) dedikazio araubidea,
- d) lanpostua betetzeko eskatutako baldintzak –horien artean nahitaez agertu behar dira esleitutako hizkuntza eskakizuna eta derrigortasun data–, eta
- e) kasu bakoitzean dagokion taldeari, kidegoari, eskalari edo lan kategoriari atxikitzea. Lanpostuak talde bati baino gehiagori esleitu ahalko zaizkio, betiere beren maila tartean badaude.

Gainera, funtzionarioentzat erreserbatutako lanpostuak badira, honako hauek adieraziko dira:

- a) Lanpostua zer mailarekin sailkatu den, 1etik 30era,
- b) lanpostuak betetzeko sistema, eta, kasua bada, zein administrazio publikotako funtzionarioek izango duten lanpostuetara aurkezteko aukera, eta
- c) esleituta daukaten osagarri espezifikoak.

Horretaz gainera, dagokion erabakia hartzeko konfiguratu behar den espedienteak honako dokumentu eta baldintza hauek jaso behar ditu gutxienez:

- 1) Zerbitzuburuaren edo pertsonaleko buruaren proposamena.
- 2) Alkatearen probidentzia, espedientea hasteko agintzen duena.

- 3) Idazkariaren txostena, jarraitu beharreko prozedurari eta aplikatu beharreko araudiari buruzkoa.
- 4) Lanpostuen zerrenda aldatzeko proiektua.
- 5) Negoziazioko mahai bateraturako deialdia.
- 6) Negoziazioko mahai bateratuaren akta.
- 7) Pertsonaleko buruaren txostena.
- 8) Kontu hartzailearen txostena.

2021eko ekitaldirako Lanpostuen Zerrenda aldatzeko espedientea aztertuta, ondoriozta daiteke ez direla bete eskakizun diren tramite eta baldintza batzuk, eta, nire ustez, ez-betetze horiek baliogabetu egiten dute hartu beharreko erabakia. Kasu batzuetan erabateko deuseztasuna eragiten dute eta beste batzuetan, berriz, lortzen den erabakiaren deuseztagarritasuna. Jarraian zehaztuko dut:

► 8 plazak ezartzean, espedientean ez da lehenengo 4 faseetako bakar bat ere osatu. Nahiz eta lehenengo hiruretan uler genezakeen ez-betetze formalak direla eta zuzen daitezkeela, ez da hala gertatzen aldatzeko proiekturik ez izatearekin, ez baitago eta ez baita eratu balorazio-oinarri objektiboen gainean.

Lehenago adierazi dudan bezala, lanpostuen zerrendaren onespren orok egon beharko du oinarriturik lanpostuen balorazio egoki batean, edo lanpostu berriak sortzeagatik edo lehendik zeudenak funtsean aldatzeagatik arrazoituta; halaber, lanpostuen edukia eta konpentsazio ekonomikoa objektiboki egokitzea bilatzen duten ezagutza zientifiko, tekniko eta praktikoak aplikatuz egin beharko da.

Lanpostuaren balioespenak zehaztuko du lanpostu horrek zer pisu duen erakundearen barruan, gainerako lanpostuekin alderatuta, garatzen dituen jarduera eta zeregin guztien arabera. Gainera, balioespen horrek lotura zuzena du ordainsarien sistemarekin, eta argi eta garbi eragiten dio osagarri espezifikoen balorazioari. Orobat, finkatzen ditu bete beharreko lanpostuaren funtzio espezifikoak eta baldintza partikularrak, osagai subjektiboak ezabatuz, zailtasun teknikoa, dedikazio berezia, bateraezintasuna, erantzukizuna eta arriskugarritasuna edo nekagarritasuna aintzat hartuta, 861/1986 Errege Dekretuaren 4. artikuluekin bat etorritik, zeinaren arabera zehazten baita toki administrazioko funtzionarioen ordainsari araubidea.

Aurkeztutako proposamenak ez du inolako funtsik; lanpostu bakoitzari inolako oinarririk gabe esleitutako baldintzak finkatzera mugatzen da, eta hori funtsezko baldintza da espedientea izapidetzeko.

Jurisprudentzia mamitsua dago auzi horrekin loturik, eta eskakizun hori ez betetzeak pentsaraziko ligukeen onespren erabakiak erabateko deuseztasun akatsa sortuko lukeela.

► Gainera, plazaren batean –zehazkiago, informatikari plazan–, ez da alde aurretik finkatu lanpostuari dagokion nahitaezko hizkuntza eskakizuna, lehen aipatu dugun Euskal Funtzio Publikoaren Legearen 15.1 d) artikuluan adierazten den bezala.

Horri dagokionez, kontuan izan behar dira Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duen apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuaren 8. eta 9. artikuluetako legezko eskakizunak, zeinetan zehazten baita hizkuntza eskakizunaren derrigortasun data nahitaezkoa dela dagokion lanpostura sartzeko eta bertan jarduteko, eta, era berean, hizkuntza eskakizuna –eta, hala badagokio, aipatutako derrigortasun data hori– lanpostu zerrendetan nahitaez agertu behar duten zehaztapenen barruan sartu beharko dela, Euskadiko Funtzio Publikoaren Legearen 15. eta 97. artikuluetan jasotako aurreikuspenen arabera.

Aurreikuspen horietatik ondoriozta daiteke nahitaezkoa dela Lanpostu Zerrendetan nahitaez sartzea hizkuntza eskakizunaren derrigortasun data zehatza. Beraz, data hori jasotzen ez duen Lanpostu Zerrenda oro ez dator bat zuzenbidearekin, eta, kasu horretan ere, erabat deusez jotzeko moduko erabaki bat ekarriko luke, ez bailuke beteko hura izapidetzeko funtsezko baldintza bat.

► Era berean, organo eskudunak onartu aurretik, Lanpostuen Zerrendak negoziazio prozesu bat izan behar du nahitaez langileen ordezkariekin, udaleko funtzionarioen eta langile lan kontratudunen arteko negoziazio mahai orokorraren bidez, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak 37. artikulua m) letran dioenari jarraikiz.

Manu horrek, c) letran, nahitaez negoziatu beharreko gaia dela zehazten du:

«Irizpide orokorrak finkatzeko arauak, gai hauek direla eta: enplegu publikora iristea, karrera egitea, lanpostuak betetzeko moduak, lanpostuak sailkatzeko sistemak eta giza baliabideak antolatzeko planak eta planifikazio-tresnak».

Halaber, artikulua horren 2.a) paragrafoak honako hau ezartzen du: «Administrazio publikoek beren antolamendu-ahalekin loturik hartzen dituzten erabakien ondorioek aurreko zenbakian adierazitako funtzionario publikoen lan-baldintzetan eragina dutenean, egoki izango da baldintza horiek estatutu honetan adierazitako erakunde sindikalekin negoziatzea».

Azaldutako legeria kontuan hartuta, Lanpostu Zerrendaren dokumentuan egindako aldaketa negoziatu egin beharko da, eta, hala ez bada, administrazioak negoziatu egin beharko du. Auzitegi Gorenaren jurisprudentziaren arabera, 2010eko abenduaren 2ko Epaia aplikatu zenetik, erabateko deuseztasun kausa izango da Lanpostu Zerrenda ez negoziatzea, negoziazio kolektiboaren oinarrizko eskubideari eragiten dion aldetik.

Azpimarratu behar da aipatutako jurisprudentziak negoziazioaz hitz egiten duela, eta, beraz, ez dela nahikoa izango sindikatuei egindako txosten edo kontsulta hutsa.

Aurkeztutako espedienteaz aztertu ostean, ondorioztatzen da informatikari plazak, behintzat, ez duela bete nahitaezko prozedura hori, eta, beraz, erabakitako erabakiaren erabateko deuseztasuna ekarriko lukeela.

► Negoziazioaren ondoren, dagokion zerbitzuburuak lanpostuen zerrendaren gaineko txostena egin beharko du, eta dagokion ebazpen proposamena egin beharko da, Informazio Batzordeak irizpena eman dezan.

Txosten bat judizio deklarazio bat da, eta organo batek egin behar du, prozedura batek planteatzen dituen alderdi juridiko edo tekniko jakin batzuei dagokienez. Alderdi horiei esker, organo eskudunak ebazpen bat eman dezake, asmatze bermekin.

Azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren bidez onetsitako Toki Korporazioen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Erregelamenduak haxe dio 172.1 artikuluan:

«Espedienteetan, horiek izapidetu behar dituen bulegoko buruak emango du informazioa, eta bere irizpidearen oinarri diren aurrekariak eta legezko edo erregelamenduzko xedapenak azalduko ditu. Ez du txosten juridikoa izan beharrik, administratiboak edo teknikoak izan daitezke (172.2). Hala ere, eta aipaturiko erregelamenduaren 173.2 artikuluan eta 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuaren 54.2 artikuluan adierazten denaren arabera, ematen diren txostenek kasu bakoitzean aplikatu beharreko legeria adierazi beharko dute, bai eta proiektuan dauden akordioak legeria horri egokitzen zaizkion ere.

Aurreikuspen horrek bat egiten du Idazkaritzako titularraren betebeharrak eta erantzukizunetako batekin, hau da, amaitutako administrazio espedienteak aztertzea presidenteari aurkeztu aurretik, eta egintza edo erabaki bat hartu aurretik dagozkion ohartarazpenak egitea.

Ildo horretatik, besteak beste, Kanarietako Justizia Auzitegi Nagusiak emandako epaia aipatu dezakegu (Administrazioarekiko Auzien Sala, 1. sekzioa, 297/2018 Epaia, 2018ko maiatzaren 3koa), zeinaren bidez ebatzi baitzen zer ondorio izango zituen Mendekotasunaren Buruzagitzak administrazio espediente jakin batean txostenik ez izateak. Hori horrela, hauxe erabaki zuen: «Adierazitakoaren kalterik gabe, eta epaiak hartutako beste deuseztasun arrazoiari dagokionez –alegia, ez edukitzea Antolamendu eta Jarduera Erregelamenduak (2574/1986 Legea) 172.1 artikuluan aipatzen duen Langileen Mendekotasunarekin loturiko txostena–, arrazoiketa osatzeko eta azkartzeko asmo hutsez, ohartarazi behar da txosten hori ezin dela ordeztu idazkariaren txostenarekin; izan ere, organoaren titularrak egin beharrekoa da txosten hori, aipaturiko erregelamenduaren arabera. Hala aldarrikatzen du, hain justu ere, erregelamenduaren 172.1 artikulua (2574/1986 Legea): «Espedienteetan, horiek izapidetu behar dituen bulegoko buruak emango du informazioa, eta bere irizpidearen oinarri diren aurrekariak eta legezko edo erregelamenduzko xedapenak azalduko ditu».

Epaia horrek berak adierazten du ez dela bideragarria Mendekotasunaren Burutzaren txostenaren ordeztu Udala Idazkaritzako titularrak egindako txostena baliatzea; izan ere, Mendekotasunaren Burutzak eginiko txostenak adierazi behar du zer iritzi duen egokitasunari, antolaketa eta langileen kudeaketa hobeari buruzko gaiei buruz, eta alderdi horiek ez lirakeke aztertuko a priori idazkariaren titularrak eman beharreko legezko txosten zorrotzean. Hortik ondorioztatzen da nahitaezko txostenik ez izatea erabakigarria dela prozedura eta amaiera eman zion egintza deusezak izateko.

Hala eta guztiz ere, ondorioztatzen da administrazio prozedura erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 39.1 artikuluan aipatzen den udal egintza/erabakiaren legezko txostenak ez lukeela izango oinarriko organo eskudunak egintza edo erabakia hartu duenean administrazio espedientearen dagokion txostena aurkeztu gabe, eta txosten horrek iuris tantum objektibotasun presuntzioa du, jurisprudentzia mamitsuaren arabera (horien artean, Auzitegi Gorenaren 1988ko apirilaren 7ko Epaia, edo 1997ko urtarrilaren 17koa). Ildo bertsutik aipa dezakegu Auzitegi Gorenaren 1996/02/28ko Epaia ere.

Bestalde, Auzitegi Gorenako Administrazioarekiko Auzien Hirugarren Salako 7. sekzioak, 2011ko urtarrilaren 27ko Epaian, irizten dio ez direla parekatzeko modukoak, batetik, txostenik ez izatea eta, bestetik, txostena eduki bai baina juridikoki onargarriak ez diren baldintzetan egin izana. Inguruabar hori, hain justu ere, aztertu dugu dagoeneko.

Auzitegi Gorenaren ustean, prozedurarik eza ez da erabatekoa eta absolutua, txosten horiek berez eduki bai baina ez daudenean espedientearen sartuta edo ez daudenean eginda juridikoki onargarriak diren baldintzetan; kasu horretan, ez da aintzat hartzen aipatu berri den erabateko deuseztasunaren legezko kasua eratzen duen prozedurarik eza, eta, aldiz, aintzat hartzekoa da 47. artikuluan jasotzen den deuseztagarritasun maila. Administrazio prozedura erkidearen legearen arabera, «egintzak ez dituen betetzen bere helburuak lortzeko formazko ezinbesteko betekizunak».

Abiarazitako espedientetik, Kontu Hartzailera honek ez du ondorioztatzen txostenik egin denik hemen aipatutako proposamenetarako.

► Azkenik, honekin batera doan txostenaren ondoren, alde aurretik Idazkaritzaren txostena eta Informazio Batzordearen irizpena jaso ostean, Udalbatzari dagokio Lanpostuen Zerrenda onartzea, gehiago soiluz, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2.i) artikulua arabera, eta ezin izango da eskuordetu ahal hori.

Horri dagokionez, lehen aipatutako epaian Auzitegi Gorenak adierazi du ez duela praktika egokitzen idazkaritzaren azterketa honako auzi honetara bakarrik mugatzea: «Prozedurazko erregulartasun hutsa; balioespen proiektuaren edukiari dagokionez, erabat eta esplizituki baztertzen da balorazio oro, enpresaren lanak ez duen zuzentasun eta legezko txostenak presuntzio batean oinarrituta».

► Dena dela, **ondorioztatu behar da** Lanpostuen Zerrenda aldatzeko ez dela bete hura onartzeko legez ezarritako prozedura, eta, nire ustez, ez dira bete haren funtsezko betekizunak ere. Kontua izango litzateke zehaztea izapide bat noiz den funtsezkoa etete eragozpena aurkezteko, edo, bestela, etete ondoriorik gabe jarraitzeko. Alde horretatik, jurisprudentiak, administrazio egintzen deuseztasun kausak aplikatzeari dagokionez, jotzen du izapide bat funtsezkoa dela, baldin eta izapide hori ez izateak eragiten badu dela xede hori lortzeko ezinbesteko baldintzak ez betetzea, dela interesdunen defentsa gabezia. Hala, Auzitegi Gorenaren 1998ko irailaren 17ko Epaiak honako hau ondorioztatzen du: «Akats formalek eragindako deuseztagarritasun hutsa gertatzen da egintzak bere helburua lortzeko formazko ezinbesteko baldintzak betetzen ez dituenean edo interesdunen defentsa gabezia eragiten duenean, azken hori administratuak duen defentsa eskubidea benetan urratzea dela ulertuta, Konstituzioaren 24. artikulua ezartzen duen moduan».

Horregatik guztiagatik, izapide bat ez egiteak prozeduraren xederako duen izaera, garrantzia eta ondorioak kontuan hartu beharko dira kasu bakoitzean, izapide hori funtsezkoa ote den zehazteko. Eta, horren arabera, udal Kontu Hartzailetzak dagokion eragozpena ezarri beharko du. Kasu honetan, agerikoa da ez dagoela funtsezko izapiderik, ez baitago izapidetutako prozedurarik; beraz, eragozpen txostena egin behar da, ezagutzen dituen egintzak eta izapideak eteteko –kasu honetan, Lanpostu Zerrenda aldatzeko proposamena–.

2) Plaza berriak sortzea, plantilla eta aurrekontu zuzkidura sortzea.

2021erako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 30eko 11/2020 Legeak aurrekontu desoreka murriztera bideratutako zenbait ekintza mantentzen ditu enplegu publikoaren arloan. Ekintza horien bidez, bermatu nahi da Espainiako sektore publikoak oreka bideari eusten diola, zor eta defizit publikoen etorkizuneko bilakaerari sinesgarritasuna emateko.

Gainera, Legeak berak 19.7 artikulua xedatzen du hemen aztertzen ari garen gaiari buruzko arauketa oinarrikoa dela, eta Konstituzioaren 149.1.13 eta 156.1 artikuluen babesean ematen direla.

19.1 artikulua adierazten duenez, sektore publikoan harreman mugagabea duten langile sartu berriak artikulua honetan adierazitako irizpideen arabera arautuko dira, eta langileen birjartze tasa % 110ekoa izango da lehentasunezko sektoreetan, eta % 100ekoa gainerakoetan.

Halaber, aurreko ekitaldiko abenduaren 31n finantza zorra amortizatuta zeukaten erakundeek ehuneko 110 ere bideratu ahalko dute sektore guztietan.

Manu horiek guztiek garrantzi berezia dute pertsonal gastuen arloan, eta honako erregulazio espezifiko hau ezartzen da:

2021. urtean ez da aldi baterako langilerik kontratatuko, ezta aldi baterako estatutupeko langilerik edo bitarteko funtzionarioirik izendatuko ere, salbuespenezko kasuetan izan ezik, eta premia urgenteak eta atzeraezinak estaltzeko (19.4 artikulua).

Artikulu horren azterketatik ondorioztatzen da oso murriztailea dela aldi baterako langileak kontratatzeko aukerari dagokionez, eta, haren edukitik, batera bete beharreko bi baldintza ondorioztatzen dira:

- a) Egoeraren salbuespena.
- b) Behar urgenteak eta atzeraezinak.

Sinatzailearen ustez, muga hori funtzio publikora langile berriak sartzeari buruzko bakarrik bada ere hitzez hitz, egia da, halaber, langileak kontratatzeko Estatuko Aurrekontuen Legearen bidez ezarritako muga horiek Aurrekontu Egonkortasunari buruzko Legeak ezarritako aginduetatik eratorritako jarraibideen testuinguruan kokatzen direla, eta, azken horien bidez, administrazio publikoen gastua arrazionalizatu nahi dela.

Lege horren xedea, azken buruan, hauxe da: «Botere publiko guztiak lotzen dituzten printzipio gidariak ezartzea, zeinetara egokitu beharko baita sektore publikoaren aurrekontu politika, aurrekontu egonkortasunera eta finantza iraunkortasunera bideratua, hazkunde ekonomiko jasagarriaren eta enplegua sortzearen berme gisa, betiere Espainiako Konstituzioaren 135. artikulua garatuz».

Eta hori guztia funtsezko 3 helburu betetzeko helburuarekin: «Herri administrazio guztien finantza egonkortasuna bermatzea; Espainiako ekonomiaren egonkortasunaren gaineko konfiantza sendotzea; eta Espainiak aurrekontu. egonkortasunaren arloan Europar Batasunarekin duen konpromisoa sendotzea».

Hala eta guztiz ere, Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoaren bidez, administrazio publikoen egiturazko defizita ezabatu nahi da, aurrekontu superabitaren destinoak bideratzeko. (32. art.). Lege horren helburuen artean dago aurrekontu egonkortasuna babestea, helburu hori lortzeko ezinbestekoa baita, bai sektore publikoaren eta ongizate sistemaren oinarri diren kalitatezko zerbitzu publikoen finantzaketa egokia bermatzeko, bai inbertitzaileei segurtasuna eskaintzeko, Espainiako ekonomiak hazteko eta gure konpromisoerik erantzuteko duen gaitasunari dagokionez.

Lege horren atarikoan mamitu zen idazketaren eta helburuaren oinarria, eta, bertan, adierazten zen Europako merkatuetan sortutako finantza tentsioek agerian utzi zutela, batetik, Europar Batasuneko erakunde sarearen hauskortasuna eta, bestetik, integrazio ekonomikoaren prozesuan aurrera egiteko beharra, estatu kideen artean koordinazio eta erantzukizun handiagoa lortzeko hala zergen alorrean, nola aurrekontuekin loturik. Testuinguru horretan, zenbait legegintza ekimen onetsi ziren European, zerga arau erkideak indartzeko eta ekonomiaren eta zergen ikuskapen handiagoa egiteko. Europako Itun Fiskala da Europar Batasuna indartzen duen eta nazioarteko egoera ekonomiko berriaren erronka zorrotzei aurre egiteko gauza den gobernantza ekonomikoaren esparrua, baina baita aurrekontuen arloko koordinazio, zaintza eta gainbegiratze handiagoa ere, alde batera utzi gabe finantza merkatuen tentsioerik erantzun bateratua emateko finantza egonkortasuneko mekanismoa garatzea.

Hitzazurre horretan adierazten zen, orobat, egoera horrek politika ekonomiko sendo bat aplikatzea eskatzen duela, sendotzen diren bi ardatz osagarritan oinarrituta: alde batetik, zerga finkapena, hau da, defizit publiko estrukturala ezabatzea eta zor publikoa murriztea, eta, bestetik, erreforma estrukturalak onestea. Baina berehalako erantzun horretatik harago, beharrezkoa da ekonomia eta zerga politikaren esparrua finkatzea, hazkunde ekonomiko eta enpleguaren sorrera etengabe bermatzeko.

Honako hau azpimarratzen zen: «Aurrekontu egonkortasunaren bermea da politika ekonomikoaren gakoetako bat; politika horrek Espainiako ekonomiarekiko konfiantza indartzen lagunduko, finantzaketa baldintza hobetan lortzea erraztuko du eta, horrekin, hazkunde ekonomikoaren eta enplegu sorkuntzaren bidea berreskuratzea ahalbidetuko. Konbentzimendu horren ondorioz, Espainiako Konstituzioaren 135. artikulua erreformatu zen 2011ko irailean, eta gure ordenamendu juridikoaren arau mailarik gorenean sartu zen gure herrialdeko defizit publiko estrukturala mugatzen duen eta zor publikoa Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren erreferentzia baliora mugatzen duen zerga araua».

2/2012 Lege Organikoaren oinarritzko xedapenek urtebeteko indarraldia dute, eta urtez urte luzatu dira lege mailako arau baten bidez, hala nola Estatuko Aurrekontu Orokorren Legearen bidez.

Hori dela eta, Legeak agertoki jakin bati aurre egiteko duen helburua eta xedea horiek izanik, nire ustez, ez da ulergarria Estatuko Aurrekontuen Legeak sarbidea mugatzeari bakarrik egitea erreferentzia, **baina ez gastua mugatzeari**; izan ere, plazak sortzen badira eta bitarteko langileekin bete badaitezke, harik eta dagokion enplegu publikoko eskaintzaren bidez betetzera iritsi arte –horretarako beharrezkoa litzateke aurrekontu zuzkidura izatea–, non geratzen da aurretik aipatu ditugun helburuak lortzeko ezarritako neurrien eraginkortasuna?

Nire ustez, ez du inolako logikarik, eta lanpostuak aldi baterako edo behin-behinean betetzeko sortzea aitzakia izan daiteke Estatuko Aurrekontu Orokorren legeetan jasotako gastu mugei iruzur egiteko.

Auzitegi Gorenaren 1. salaren jurisprudentziaren arabera, lege-iruzurraren erregulazioak ikuspegi hau du abiapuntu: "Interpretazioa ez da arauaren letran gelditzen, baizik eta borondateen bila jo behar du. "

Manua interpretatzea ez da beharrezkoa, ez da eraginkorra, eta, ebazpen judizialen batek dioen bezala, legegilearen asmoa desegitea ekar dezake, legeak benetan onartzen dituen bestelako edo kontrako irtenbide juridikoak emanez.

Hautabide horretan, nire ustez, legeen zentzura eta helburura jo behar da. Arau juridikoen interpretazio irizpideak legegilearen asmoari edo hura hartzea eragin zuen helburuari erreparatzen dio batez ere.

Arauk gutxitan egoten dira isolaturik; xedapen multzo baten barruan sartuta egoten dira, edo elkarren artean **barne koherentziarekin** lotuta.

Termino berak izan dezake esanahi desberdina. Zentzu bat edo bestea noiz nagusitu behar den erabakitzea aztertutako arauaren testuinguruak ematen du normalean. Hala aitortzen du Kode Zibilaren 3.1 artikulua, esaten baitu hitzak «testuinguruarekin loturik» aztertu behar direla. Kasu horietan, interpretazio sistematikoaz hitz egiten da.

Halaber, Kode Zibilaren 3.1 artikulua eskatzen du interpretatzaileak interpretatutako arauaren «aurrekari historikoak eta legegintzakoak» ere balioetsi behar dituela. Legegintzakoak; izan ere, lege arauen kasuan, zirriborroak, proiektuak, inspirazio gisa balio izan zuten atzerriko testuak, Legebiltzarreko eztabaidaren aktak eta abar edukiko dira. Historikoak; izan ere, araua egiteko historia txikiari ez ezik, jaio zen une historikoari eta aurreko tradizio juridikoari ere erreparatu behar baitzaio.

Araua produktu historiko bat da batez ere; eta haren historia ezagututa bakarrik uler eta aplikatu daiteke jaiotzen ikusi zuen une historikoaz bestelako batean. Horixe da interpretazio historikoa.

Kode Zibilaren bidez kokatzen da hautakortasun hori, eta hauxe xedatzen da 3.1 artikuluan: «Arauk euren hitzez-hitzezko esanguraren arabera interpretatuko dira, betiere testuinguruari, aurrekari historikoei eta legegintzako aurrekariari, eta arau horiek aplikatu behar diren garaiko gizarte-errealitateari lotuta, eta, batik bat, arauen espiritua eta xedea kontuan hartuta».

Horretaz gainera, iruditzen zait sendotu egiten dela interpretazio hori, baldin eta kontuan hartzen badugu Estatuko Aurrekontuen Legean bertan xedatutakoa. Eta, nire ustez, arau horretan azaldutakoari ematen zaion interpretazioa da kontraesankorra (alegia, ezinezkoa den gauza bakarra funtzio publikoan sartzea, baina ez sortu berri den edozein plaza ekonomikoki hornitzea, zeina aldi baterako langileekin bete bailiteke), aldi baterako figura hori aktibatzeke eskatzen diren betekizunekin. Argi dago, baldintza batzuk betez gero («urgentzia eta salbuespena»), kontrata daitezkeela behin-behineko funtzionarioak «aldi baterako» zeregin pilaketagatik edo programagatik, baina sortutako lanpostu huts bat bete nahi duen bitarteko funtzionario batek ez ditu betetzen baldintza horiek.

Plaza berriak sortzeak ez du gehiegi kontuan hartzen aldi baterako kontratazio horien berri ematen duen salbuespeneko beharra, premiazkoa eta atzerazina, ezinbesteko kasuei erantzuten diela baitirudi.

Kontuan izan behar da Funtzio Publikoa Erreformatzeko Neurriei buruzko abuztuaren 2ko 30/1984 Legearen 15.1.f) artikulua honako hau xedatzen duela: «Funtzionarioek bete beharreko lanpostuak betetzeko eta lan kontratu finkoko langileen kontratu berriak formalizatzeko, beharrezkoa izango da dagozkien lanpostuak zerrendetan zehaztuta agertzea.

Baldintza hori ez da beharrezkoa izango lan ez-iraunkorrak iraupen mugatuko lan kontratuen bidez eta behin-behineko langileei dagozkien kredituen edo inbertsioen kapituluaren kargura egin behar direnean».

Bestalde, bitarteko funtzionarioen izendapenari dagokionez, urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitako Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bateginaren 10.1 artikulua hau xedatzen du: «Bitarteko funtzionarioak dira, urgentziak eta beharrak hala aginduta, berariaz justifikatutako arrazoiak direla-eta bitarteko funtzionario izendatutakoak karrerako funtzionarioei dagozkien zereginak egiteko, hauetako bat gertatzen denean:

- a) Plaza hutsak daudenean, baldin eta ezin badira karrerako funtzionarioekin bete.
- b) Titularrak aldi baterako ordeztuko denean.
- c) Aldi baterako programak betetzeko denean; programa horiek ezin izango dute hiru urtetik gorako iraupena izan, eta beste hamabi hilabetez luzatu ahal izango dira, estatutu hau garatzeko ematen diren Funtzio Publikoko legeen bidez.
- d) Zeregin kopuru handiegia edo zeregin-pilaketa dagoenean; gehienez ere sei hileko epe baterako izango da, hamabi hileko tarte batean».

Eta puntu horretan, arauaren hitzez hitzeko testuak, berriz ere, nire ustez bilatzen ez duen zerbait interpretatzera garamatza. Egia da esaten duela lanpostu hutsak betetzeko erabiliko dela, karrerako funtzionarioekin bete ezin direnean, baina zehazten du lanpostuak betetzeko mekanismo normalizatu bat duen egoera baterako dela. Eta argi dago Estatuko Aurrekontuen Legearen xedapenak salbuespeneko neurriak direla, ohiko araudian onartuta daudenekin alderaturik. Eta salbuespen oro modu murriztailean interpretatu behar da beti.

Hau da, aldi baterako langileak kontratatzea (bitarteko funtzionarioak edo langile lan kontratudunak, salbuespeneko kasuetarako eta premiazko eta atzerazinezko beharrak betetzeko) hobeto egokitzen da aldi baterako programak gauzatzearekin edo Lanpostuen Zerrendan alde aurretik plazak sortzea eskatzen ez duten aldi baterako zeregin gehiegi edo asko piltzearekin.

Hala ere, karrerako funtzionarioek bete ezin dituzten lanpostu hutsak betetzeko bitarteko funtzionarioak izendatzeak –plazak ad hoc sortu ondoren– ematen du iruzur egiten diela gastu publikoari eusteko asmoz ezarritako Estatuko Aurrekontu Orokorren legeko mugei, ez baita ahaztu behar Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bateginaren 10.1 artikulua eskatzen duena, alegia, berariaz justifikatu behar direla premia eta urgentzia.

Lanpostu Zerrendaren bidez lanpostuak sortzeak adierazten du, printzipioz, ez dela bateragarria salbuespen kontzeptuarekin, ez eta premia larri eta atzerazinarekin ere.

Are gehiago, Toki Araubidearen arloan indarrean dauden lege xedapenen testu bategina onartzen duen apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuaren 126. artikulua argi eta garbi ezartzen du plantillak handitu edo areagotu ahal izango direla baldin eta gastuaren gehikuntza konpentsatzen bada handitu ezin diren gastu arrunten beste unitate edo kapitulu batzuk murriztuz, edo, bestela, zuzkiduren gehikuntza legeko xedapenek ezarritako nahitaezko zerbitzuak ezartzearen edo aplikatzearen ondorio denean. Premisa hori ez da betetzen proposatutako espedientean.

Administrazioaren ahalmen diskrezionalak, Toki Erakundeen araubideak ezartzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 4. artikuluan xedatutakoan oinarrituta, ez du babesten administrazioak presaren edo salbuespenaren kontzeptu juridikoa diskrezionalki interpretatzea, ezta bere irizpideak jurisdikzionala ordeztu ahal izatea ere.

Korporazioak, bere zerbitzuak antolatzeko ahalaren barruan, eta aldi baterako plaza bat kontratatzea komeni dela uste badu, kontrata dezake hainbat arrazoi direla eta (hala nola aukera, egituraren antolaketa, eginkizunen esleipena eta beste arrazoi batzuk), baina arrazoitu egin beharko da erabaki hori. Egia da autoantolaketarako ahalak diskrezionalitate osagai handia duela, baina ez da ahaztu behar administrazio ahalen erabilera egokitu egin behar dela legegileak lortu nahi duen helburura, bestela Konstituzioaren 9.3 artikulua debekatutako arbitrariotasuna edo Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 70.2 artikuluan definitutako desbideratze akatsa izango bailitzateke. Alegia, administrazio ahalak ordenamendu juridikoan ezarritakoez bestelako helburuetarako erabiltzea izango litzateke, eta hori debekatuta dago Konstituzioaren 106.1 artikuluan, 103.1 artikuluari dagokionez.

Asturiasko Justizia Auzitegi Nagusiaren urriaren 29ko 24/2001 Epaiak dioen bezala (Administrazioarekiko Auzien Sala, Bigarren Sekzioa), Administrazioak berezkoa duen antolaketa ahala baliatzean duen diskrezionalitateak ezin du eragin inola ere diskriminaziorik, ezta erabakimen askerik ere.

Auzitegi Gorenaren 2007ko otsailaren 8ko Epaiak, Galiziako Justizia Auzitegi Nagusiak 2005eko martxoaren 16an emandako 205/05 Epaiaren aurka ipinitako kasazio errekurtsio baten aurrean, honako hau adierazi zuen: «Zehaztu gabeko kontzeptu juridiko bat da, eta haren kontrola, administrazio egintza guztiena bezala, Konstituzioaren 106.1 artikuluan dago jasota, honako hau xedatzen duenean: “Auzitegiek kontrolatzen dute, bai administrazioak erregelamenduak emateko duen ahala, bai administrazioaren jardunaren legezotasuna eta jardun hori administrazioak bere dituen helburuetara egokitzen den”. Manu horrek administrazio egintza eta erregelamendu guztiak epaile eta auzitegietara bideratzea ahalbidetzen du, inolako salbuespenik gabe. Jakina, kontrol hori ordenamendu juridikoaren parametroarekin bakarrik egin daiteke, eta haren mende daude epaileak eta auzitegiak (Konstituzioaren 9.1 eta 117.1 artikulua), baina diskrezionalitatea ordenamendu juridikoaren urraketarik ez egotearen ondorio izango da, eta ez administrazio egintza baten kontrol jurisdikzionala baztertzen duen *prius* bat, egintza bat edo administrazio-ahal bat diskrezionaltzat kalifikatzearen aitzakian».

Salbuespena, plaza betetzeko premia urgentea eta atzeraezina, ez da egiaztatzen behar hori dagoela baieztatze hutsarekin, eta premia hori premiazkoa eta atzeraezina dela baieztatzen da; izan ere, premia hori izatea eta atzeraezina eta presazkoa izatea gertatzen diren edo ez diren egitatezko inguruabarrak dira, eta enpirikoki ikus daitezke, adibidez, lana egitean ohikotasunetik kanpoko egoera bat gertatu dela egiaztatuz, plazaren lan-bolumena, lanpostua ez betetzeak eragiten duen lan karga, lanpostua dagoen sailean ez betetzeak duen inpaktua... Hau da, proposaturiko kontratazioa adostea ahalbidetzen duten inguruabarrak gertatzen direla justifikatu egin daiteke eta justifikatu egin behar da, eta Saileko arduradunaren eskaerak edo txostenak, kexak, estatistikak, egiteko dauden gaiei buruzko azterlanak edo antzeko dokumentazioa aurkeztu behar dira. Hala badagokio, auzitegiek egiaztatu behar dute badagoela bitarteko funtzionarioa kontratatzea erabakitzeko egitatezko aurrekontu gisa arauak ezartzen dituen salbuespenezko eta premiazko premia atzeraezina (Aragoiko Auzitegi Gorenaren urriaren 7ko Epai).

Beraz, zalantzarik gabe, administrazio prozeduran egiaztatu egin behar da betetzen direla baldintza gaitzaile horiek, eta izendapen ebazpenean zehaztu behar da. Nolanahi ere, zalantzan jarri ahal izango da erabakiaren legezotasuna, oinarri duen egitatezko aurrekontuaren errealitatea aztertuz.

Horregatik guztiagatik, Lanpostuen Zerrendan sartutako lanpostu sortu berriak aurrekontuz hornitzeko proposamenaren aurkako **Erreparoa** eqiten dut.

- Erretiro aurreratuagatik 3 kalte-ordain sartu dira, eta, ondorio horietarako, ez dago onartutako enplegua doitzeko planik.
- 2021(e)ko ekitaldirako, gizarte-ekintzara bideratutako gastuak 241.784,43 eurokoa dira, hau da, egindako lanaren kontraprestazioez bestelako mozkinak, osagarriak edo hobekuntzak, udal-langileen inguruabar pertsonalen ondoriozko behar jakin batzuk asetzea helburu dutenak. Aurreko ekitaldiarekin alderatuta, %7,52 gehitu da eta horrek urratu egiten du Estatuko Aurrekontu Orokorren Legearen 18.2 artikulua, bertan ezartzen diren mugak eta baldintzak errespetatzen ez dituelako (0,00 igoera).

Horregatik guztiagatik, ERREPAROA jartzen diot Langileriaren kapituluari buruz aurkeztutako proposamenari. Azaldutako gaietan, behin eta berriz proposatu da esku-hartze hori, eta, beraz, egindako txostenei lotzen natzaie. Proiektuan baldintza berberetan mantentzen bada Osoko Bilkurak onar dezan, urratutako aginduen txosten zehatzagoa egingo da.

9.- PERTSONALAREN ORDAINSARI-MASA OSOA ETA SOLDATA-MASA

- Pertsonal laboralaren soldata-masa onestea Udalbatzarraren eskumena da. 2021. urteko ekitaldirako, soldata-masa 2.422.796,80 euroan finkatua geratzen da, iazko ekitaldikoaren aldean %1,69 gehitu delarik. Hori guztia gorabehera, ordainsarien egokitzeak egin ahalko dira kasu berezietan, ezinbestekoak badira. Eta kasu honetan, oro har, Estatuaren Aurrekontu Orokorren Legean oinarritzko izaerarekin ezartzen diren mugak eta baldintzak errespetatu gabe, batez ere plantillako plazen hazkundearen eraginak eraginda.

Hala ere, adierazi behar da arauak uneoro aipatzen duela igoera hori homogeneousutasun-terminoetan neurtu behar dela konparazioaren xede diren bi aldietarako.

Arauak "homogeneousutasun" terminoa aipatzen duenean, aurreko ekitaldiko aurrekontuko I. kapituluko kopuru bateratuak eta aurrekontu berrian aurreikusitakoak alderatu behar dira, baina baldintza beretan (egoera pertsonal bera eta lanpostu bera).

Horrek esan nahi du, homogeneousutasunari dagokionez, ezin ditugula alderatu lanpostu desberdin bat edo antzeko lanpostuak, baina funtzio eta zeregin desberdinak dituztenak; beraz, beren eginkizunen artean faktore berriak (dedikazio handiagoa, erantzukizuna, zailtasun teknikoa, etab.) sartzegatik ordainsari-igoerak izan ditzaketen lanpostuek egokitasun hori justifikatuko lukete, eta ez litzateke alderatuko homogeneousutasunari dagokionez.

Hori dela eta, homogeneousutasun-terminoetan, ezarritako gehikuntza betetzen da.

- Pertsonal funtzionarioarentzat soldata-masaren definiziorik ez dagoenez gero, asimilazioz, lehenagoko aurrekontu-legeetan xedatutakotik ondoriozta daiteke ezen, ezarritako mugak kalkulatzeko, pertsonal funtzionarioak bereganatutako ordainsarien multzoari dagokion gastuaren gaineko portzentajea aplikatuko da honako ordainsariaren kontzeptu hauetan: Oinarritzko lansariak, lanpostu-mailako osagarria, berariazko osagarria eta produktibitateko osagarria edo antzeko kontzeptuak, ekintza sozialeko gastuak kontatu gabe.

Ondorioz, pertsonal funtzionarioaren Ordainsari-masa osoa 2.945.666,42 € euroan finkatua geratzen da, iazko ekitaldikoaren aldean %17,27 gehitu delarik. Hori guztia gorabehera, ordainsarien egokitzeak egin ahalko dira kasu berezietan, ezinbestekoak badira. Eta, oro har, ezartzen diren mugak errespetatu gabe, lehen aipatutako arrazoi berberengatik.

10.- KONPROMISU-KREDITUAK

Etorkizuneko ekitaldietarako konpromisoko kredituek 23.583.029,15 euroko batura egiten dute, eta azken ekitaldi likidatuko operazio arruntengatik aitorturiko eskubideek 10.356.900,00 euro.

Ondorioz, ekitaldi bakoitzean, zenbateko horrek ez du gainditzen aipaturiko eskubide onartu horien %25a (5.895.757,29 euro) eta, edozein kasutan ere, ekitaldi horietarako aurreikusten diren baliakizun finantzarioak, bertakoak nahiz kanpokoak, nahikoak dira haiek finantzatzeko.

11.- KREDITU GLOBALA

Aurrekontuko gastuen egoera-orriaren barruan, ordainketarako kreditu global bat sartu da, kopuruz 559.666,63 eurokoa, ordainketarako beste kreditu batzuen zuzkiduretako askieztasunei erantzuteko edo zuzkidurarik ez duten premia berriei aurre egiteko, bai eta zabalgarritzat kalifikatutako kredituak finantzatzeko ere.

Honela eraturako kreditu globalaren zuzkidurak ez du Entitate Lokaleko Administrazioaren Aurrekontuko ordainketarako kredituen zenbateko totalaren %5a gaindituko, kreditu globalaren beraren zuzkidura ere barne hartuta. Hau da, kreditu global gisa era litekeen gehieneko zenbatekoa 1.786.139,08 eurokoa da.

12.- ONESTEKO TRAMITEAK.

- Aurrekontu Orokorra onestea Udalbatzarrari dagokio, eta gehiengo soilez aldeko botoa ematea eskatzen du.

Bertan, kreditu-eragiketa bat dago, diru-sarrera arrunten% 10 gainditzen duena. Hori horrela, eragiketa hori izapidetzen denean, Udalbatzari dagokio onartzeko eskumena, eta gehiengo osoz eman beharko du aldeko botoa.

- Aurrekontu Orokorraren onespenerari buruzko behin-behineko erabakia harturik, hamabost laneguneko epean informazio publikora jarri behar da Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Udaletxeko ediktu-taulan argitaratzearen bidez, interesatuek aztertu ahal izan dezaten eta, hala badagokio, aipaturako epean bidezkotzat jotzen dituzten erreklamazioak formulatu ahal izan ditzaten.

Era beran, Lan kontratupeko langileen Soldata-masa, onartu ondoren, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Udaletxeko egoitza elektronikoan argitaratuko da, 20 eguneko epean.

- Adierazitako epean erreklamaziorik izanez gero, Udalbatzar Osoak erreklamazio haiek hilabete bateko epean ebatzi eta Aurrekontu Orokorra behin betiko onetsiko du. Erreklamaziorik izan ezean, Aurrekontua behin betiko onetsizat ulertuko da erabaki espresu baten beharrik izan gabe.

Lasarte-Orian, 2021(e)ko martxoaren 16(e)an

KONTUHARTZAILEAK

5.2 AURREKONTUEN EGONKORTASUNAREN ETA FINANTZEN IRAUNKORTASUNAREN LEGEA BETETZEARI BURUZKO TXOSTENA.

Udal honetako funtsen kontu-hartzaileak, 1/2013 foru-arauaren 5. artikuluan eta tutoretza finantzarioaren eskumena garatzeko instrukzioan Gipuzkoako entitate lokalen aurrekontuen egonkortasunari eta finantzen iraunkortasunari buruz xedatutakoa betez, eta 2021. urteko aurrekontuari dagokionez, egoki deritzo ondoko txosten hau egiteari:

TXOSTENA

LEHENIK. Apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoak, aurrekontuen egonkortasunari eta finantzen iraunkortasunari buruzkoak, bere helburuen artean ezartzen du administrazio publiko guztien iraunkortasun finantzarioa bermatzea.

Horregatik, aurrekontuak garatzean, onestea eta gauzatzean, bai eta entitate lokalen gastu edo sarrerei eragiten dieten gainerako jarduketak egitean ere, aurrekontuen egonkortasunaren printzipioa bete behar da, aurrekontuen egonkortasunari eta finantzen iraunkortasunari buruzko 2/2012 Lege Organiko apirilaren 27koak 3. eta 11. artikuluetan xedatzen duenaren arabera.

Eta, modu berean, korporazio lokalen gastu konputagarriaren bariazioak ezingo du gainditu Espainiako ekonomiaren epe ertaineko barne-produktu gordinaren hazkundearen erreferentziazko tasa.

BIGARRENIK. Aplikatzekoa den legeria:

- Aurrekontuen egonkortasunari eta finantzen iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoaren 3, 11, 12, 21 eta 23. artikulua.
- Aurrekontuen egonkortasunari buruzko 18/2001 Lege abenduaren 12koa entitate lokalei aplikatuz garatzeko erregelamendua onesten duen 1463/2007 errege-dekretu azaroaren 2koaren 16.2 artikulua.
- Martxoaren 5eko 2/2004 errege-dekretu legegintzazkoaren bidez onetsitako Ogasun Lokalak Arautzeko Legearen Testu Bateratuaren 51. artikulutik 53.era artekoak.
- Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 549/2013 erregelamendua (EB), 2013ko maiatzaren 21ekoa, Europar Batasuneko Nazio eta Eskualdeetako Kontuen Sistema Europarrari buruzkoa (KSE-10).
- Aurrekontuen egonkortasunari eta finantzen iraunkortasunari buruzko 2/2012 Lege Organikoaren 12. artikuluko Gastuaren Erregela korporazio lokalentzat zehazteko gida (IGAE).
- Aurrekontuen egonkortasunari eta finantzen iraunkortasunari buruz entitate lokalen tutoretza finantzarioaren eskumena garatzen duen 1/2013 foru-araua eta 2020. urteko ekitaldirako instrukzioa.
- 9/2020 Foru Dekretu-Araua, azaroaren 10ekoa, Gipuzkoako toki entitateei aplikatzen diren ezohiko eta presazko finan tza neurriei buruzkoa.

HIRUGARRENIK. Aipatutako instrukzio horren 4. erregelak ezartzen duenez, Kontu-hartzaileak txosten bat egingo du aurrekontuen egonkortasunari eta finantzen iraunkortasunari buruzko helburuak nahiz gastuaren erregela betetzeari buruz.

Txosten hori modu independentean egingo da, espediente hau betetzeko lehendik ere aurreikusita daudenei erantsiko zaie.

Baldin eta aurrekontuen egonkortasunaren helburuari edo gastuaren erregelari buruzko ebaluazioaren emaitza ez betetzea bada, entitate lokalak plan ekonomiko-finantzario bat prestatuko du aipatutako instrukzioaren 1., 2. eta 3. erregeletan xedatutakoaren arabera, aipatutako helburu horiek betetzeko bidea emango duena, eta gutxienez 2022-2024 epea hartu beharko du barnean.

LAUGARRENIK. Aipatutako instrukzio horren 1. 2 eta 3. erregelek ezartzen dutenez, Plan ekonomiko-finantzario bat egiteko betebeharra zehazte aldera, apartatu horietan jarritako helburuak bete izana 2021ko urteko likidazioaren eta kontuen bidez egiaztatuko da entitate guztientzat, horiek banaka hartuta.

5.2.1.- Aurrekontu Orokor kontsolidatua osatzen duten entitateak:

a) Administrazio lokala osatzen duten unitateak:

- * Lasarte-Oriako Udala

b) Gainerako entitate publiko enpresarialak, merkataritzako sozietateak eta entitate lokalen mende dauden zuzenbide publikoko beste entitateak:

5.2.2.- Aurrekontuen egonkortasunaren helburua betetzea:

Aurrekontuen egonkortasunaren helburua orekako edo superabiteko egoera batekin identifikatzen da, ziklo ekonomikoan zehar finantzatzeko ahalmenaren terminoetan konputatuta, Nazio eta Eskualdeetako Kontuen Sistema Europarrean (KSE-10) jasotako definizioaren arabera.

Entitate lokalen esparruan, finantzatzeko ahalmenaren edo beharraren aldagaia kalkulatzeko, KSE-10eko aurrekontuen terminoetan eta kontabilizazioko zenbait ñabardura alde batera utzita, Sarrerren Aurrekontuko 1etik 7ra kapituluaren eta Gastuen Aurrekontuko 1etik 7ra kapituluaren arteko diferentzia ateratzen da.

Operazio hori maila kontsolidatuan kalkulatu behar da, merkatuko diru-sarrerarik sortzen ez duten mendeko entitateen egonkortasuna barne.

Zehazki, 2019 eta 2020. urteetako ekitaldietarako finkatu zen %a eta 2021, 2022 eta 2023. urteetako ekitaldietarako ezarri dena honako hauek izan dira:

2019	2020	2021	2022	2023
0,00	-0,12	-0,10	0,00	0,00

5.2.2.1.- KSE-10aren terminoetan egin beharreko doiketak:

Aurrekontuetako kontabilitatearen eta kontabilitate nazionalaren arteko irizpide-diferentziak direla eta, beharrezkoa da doiketak egitea, entitate honen aurrekontuen informazioa Nazio eta Eskualdeetako Kontuen Sistema Europarrean (KSE-10) ezarritako irizpideetara egokitze aldera.

Txostena sinplifikatze aldera, Estatuko Administrazioaren Kontu-hartzaitza Orokorrak (IGAE) argitaratutako «Kontabilitate nazionalan defizita kalkulatzeko eskuliburua, korporazio lokalei egokitua» eta «KSE 2010 berriaren aplikazioan administrazio publikoen kontuei eragiten dizkieten aldaketa metodologikoei buruzko oharra» dokumentuei jarraituz, korporazio honetan zuzenean eragiten duten doiketak bakarrik garatuko dira jarraian, korporazio honen aurrekontuetako kontabilitatearen zertzelada partikularrak aintzat hartuta:

* 1. doiketa: Zergen, Tasen eta bestelako sarrerren Kontabilitate Nazionalan erregistratzea.

Administrazio publikoen finantzatzeko ahalmena/beharra ezin du afektatu dudazko kobrantza duten zerga eta kotizazioen zenbatekoak; beraz, nola aurrekontua prestatzeko erreferentziatzen erabiltzen direnak eskubide onartuak baitira eta ez aurreko ekitaldietan kobratutakoak, interpretatzen da bidezkoa dela 1. kapitulutik 3.era bitarteko diru-sarrerren gainean gero deskribatzen den doiketa egitea.

> DOIKETA: Kutzako irizpidea aplikatuko da (ekitaldian zehar kobratutako sarrerak, kapitulu bakoitzeko jadaneko eta itxitako ekitaldietakoak), kobratzeke dauden eskubideen eboluzioko datuak hartuta, zeina ageri baita eskubide kobragaitzen analisiari buruzko espediente honen I.7 atalean.

GAUZATZE GLOBALAREN ESTIMAZIOAREN ZAIN DAUDEN ESKUBIDEAK

Urtea Año	Eskubide Onartuak Derechos Reconocidos	Anulazioko bajak Bajas por Anulación	%	Kobratzeke Pendiente de cobro	%	Kobrantza Cobrado	%
2020	9.399.549,42	581.363,68	6,19%	1.504.700,85	16,01%	7.313.484,89	82,94%
Aurrekoak Anteriores	13.315.426,61	1.033.727,44	7,76%	378.810,07	2,84%	11.902.889,10	96,92%
	1.883.510,92	146.160,45	7,76%		0,00%	1.737.350,47	92,24%

Aurreikuspenak aplikatuta, doiketa-kopuru hauek ematen dituela, zeinek MURRIZTU egiten baituzte indarrean dagoen aurrekontuko 1. kapitulutik 3.era artekoak.

G/S G/I	Kobratzeke Pendiente de cobro	Doiketaren Zenbatekoa Importe Ajuste	Doiketaren % Ajuste	Hasierako Kredituak Créditos Iniciales	Doiketaren Zenbatekoa Importe Ajuste	Doiketaren % Ajuste	Kobratetaren % % Cobro
	Estimación de la Liquidación 2020. urteko Likidazioaren Aurreikuspena			Presupuesto 2021. urteko Aurrekontua			
I	(-)	1.883.510,92	-146.160,45	-7,76%	8.377.427,01	-650.088,34	-7,76%
							92,24%

*** 2. doiketa: Sarrerren Egoerako 4. kapitulua: Entitatearen erregimenaren arabera, Estatuaren sarreretan edo tributu zedituetan parte hartzeagatik sarrerak.**

Doiketa hau Tributu Kontzertatuetan parte hartzearen kontzeptuagatik aurreko ekitaldian izandako likidazio negatiboak itzultzearen kontzeptuan —kasua hala bada— Foru Aldundiari 2021. urtean zehar itzuli behar zaion zenbatekoa da, zeinak operatzen baitu kontzeptu horrengatik 2021. urtean aurreikusitako sarrerei batuta (Koordinazio Autonomiko eta Lokalerako Idazkaritza Nagusiak entitate lokalekin finantzak koordinatzeko daukan Bulego Birtualean ageri den formularioaren arabera, zeinaren bidez gauzatzen baitira informazioa emateko obligazioak, haren 2012/12/21eko 01b bertsioan).

Doiketa hori egin beharko da baldin eta aurrekontua ekitaldian aurreikusitako eskubide onartu netoekin egiten bada, kontuan izanda Foru Aldundiak doiketa negatiboa egiten duela.

Zehazki:

Doiketa positiboa izango da baldin eta onartutako eskubideen zenbatekoa Foru Aldundiak ordaindutako kopura baino txikiagoa bada. Eta negatiboa kontrako kasuan.

G/S G/I	Doiketaren Zenbatekoa Importe Ajuste	Likidazioa Liquidación	Likidazioaren Aurreikuspena Estimación de la Liquidación	Aurrekontua Presupuesto
		2019	2020	2021
I	UFFFko likidazioa Liquidación FFFM (+/-)			

*** 3. doiketa: Interesen tratamendua**

Interesak haiek sorrarazteko irizpidearen arabera erregistratzen dira.

A) SARRERAK: Sarrerren Egoerako 5. kapitulua

Doiketa negatiboa izango da baldin eta interesengatik onartutako eskubideen zenbatekoa sorrarazitako interesena baino handiagoa bada. Eta positiboa da baldin eta onartutako eskubideen zenbatekoa txikiagoa bada.

Beraz, kendu egin beharko genuke 2020. urtean kobratuta 2019. urtean sorrarazi ziren interesen parte, eta 2021. urtean kobratuko diren baina 2020. urtean sorrarazi diren interesak gehitu beharko genituzke.

Hala ere, garrantzi erlatiboaren printzipioa aplikatuz, kontsidera liteke doiketa hori egitea ez dela beharrezkoa, zeren eta konpentsatzera irits baitaitezke 2020. urteko ekitaldian 2019. urteko aldi partzialei dagozkienak kobratzeagatik gutxiagotuko liratekeen interesak, 2020. urtean partzialki sorrarazi diren baina 2021. urtean kobratuko direnengatik izango diren gehikuntzekin.

B) GASTUAK: Gastuen Egoerako 3. kapitulua

Interesak haiek sorrarazteko irizpidearen arabera erregistratzen dira. Beraz, kendu egin beharko genuke 2020. urtean pagatuta 2019. urtean sorrarazi ziren interesen parte, eta 2021. urtean pagatuko diren baina 2020. urtean sorrarazi diren interesak gehitu beharko genituzke.

Doiketa positiboa izango da baldin eta interesengatik onartutako obligazioen zenbatekoa sorrarazitako interesena baino handiagoa bada. Eta negatiboa baldin eta onartutako obligazioen zenbatekoa txikiagoa bada.

Beraz, kendu egin beharko genuke 2020. urtean pagatuta 2019. urtean sorrarazi ziren interesen parte, eta 2021. urtean pagatuko diren baina 2020. urtean sorrarazi diren interesak gehitu beharko genituzke.

Hala ere, garrantzi erlatiboaren printzipioa aplikatuz, kontsidera liteke doiketa hori egitea ez dela beharrezkoa, ezen eta konpentsatzera irits baitaitezke 2020. urteko ekitaldian 2019. urteko aldi partzialei dagozkienak epemugarazteagatik gutxiagotuko liratekeen interesak, 2020. urtean partzialki sorrarazi diren baina 2021. urtean pagatuko direnengatik izango diren gehikuntzekin.

*** 6. doiketa: Administrazio publikoen arteko transferentzien kontsolidazioa**

Administrazioen arteko transferentzien kasuan, pagatzaileak (Estatua, Eusko Jaurlaritzza, Foru Aldundia...) gastua zein unetan erregistratzen duen finkatutakoan, transferentziaren jasotzaileak (Udala) aldi berean kontabilizatu behar du, eta haren kontuetan ageri den zenbateko berarekin. Horregatik, Udalak modu ezberdinean erregistratzen badu, dagokion doiketa egingo da, kontabilitate nazionalaren ikuspuntutik:

- ▶ Doiketa positiboa (+): unitate pagatzailean onartutako obligazioak jasotzailean likidatutako eskubideak baino handiagoak badira. Sarrera ez finantzario handiagoa errepresentatzen dute, eta beraz defizit txikiagoa.
- ▶ Doiketa negatiboa (-): unitate pagatzailean onartutako obligazioak jasotzailean likidatutako eskubideak baino txikiagoak badira. Sarrera ez finantzario txikiagoa errepresentatzen dute, eta beraz defizit handiagoa.

G / S G / I	Entitate pagatzaileak onartutako obligazioa	Udalak onartutako eskubidea	Doiketaren Zenbatekoa		Entitate pagatzaileak onartutako obligazioa	Udalak onartutako eskubidea	Doiketaren Zenbatekoa
	Obligación reconocida por la entidad pagadora	Derecho reconocido por el Ayuntamiento	Importe Ajuste		Obligación reconocida por la entidad pagadora	Derecho reconocido por el Ayuntamiento	Importe Ajuste
	Estimación de la Liquidación 2020. urteko Likidazioaren Aurreikuspena				Presupuesto 2021. urteko Aurrekontua		
I				(+/-)			

*** 11. doiketa: Abalak gauzatzeko eta itzultzeko operazioak.**

Udalak abal bat erakitzeko ez du kontabilitateko anotaziorik sorrarazten aurrekontuan. Nolanahi ere, Udalak eman duen abal bat gauzatzen bada, hark abalaren pagamenduari aurre egin behar dio, eta, aurrekontu aldetik, gastuen aurrekontuko VII. kapituluaren erregistratzen da.

Kontabilitate nazionalan, operazio horrek izaera ez finantzarioa du; beraz, pagatutako zenbatekoari dagokion gastu ez finantzario handiago bat onartu beharko litzateke, eta horrek gastu handiagoa lekarke.

- ▶ Doiketa positiboa (+): abala gauzatzeko ondorioz pagatutako kopuruaren zenbatekoa.

G / S G / I	Doiketaren % Ajuste		Likidazioa	Likidazioaren	Aurrekontua
			Liquidación	Aurreikuspena	Presupuesto
			2019	2020	2021
G	Gauzatuak Avalak Ejecutados	(+)			

*** 14. doiketa: Ekitaldian egindako gastuetatik aurrekontuan aplikatzeko daudenak.**

413. kontuan jasotako gastuak dira, zorren zutabearen abenduaren 31n aplikatzeko dauden zenbatekoarekin eta hartzeko zutabearen ekitaldian zehar aplikatu baina aurreko ekitalditik datozen zenbatekoarekin. Lehenbizikoek defizita gehitu egiten dute kontabilitate nazionalaren terminoetan; bigarrenak, berriz, gutxitu egiten dute, zeren eta iaz gehitu baitzuten eta aurten berriro gehitzen baitute aurrekontuari aplikatzeko bidez; horregatik, konpentsatu egin behar da inputazio bikoitz hori, superabita gehituz.

Sortzapenaren printzipioaren arabera, kontu horietan erregistratutako obligazioak aurrekontuan ere konputatu behar ziratekeen, eta horretarako beharrezkoa da doiketa hau egitea:

- ▶ Doiketa negatiboa (-): «413. kontuaren» azken saldoa hasierako saldoa baino txikiagoa bada.
- ▶ Doiketa positiboa (+): «413. kontuaren» azken saldoa hasierako saldoa baino handiagoa bada.

G / S G / I	Doiketaren Zenbatekoa			Doiketaren Zenbatekoa		Doiketaren Zenbatekoa	
	Importe	Ajuste		Importe	Ajuste	Importe	Ajuste
	Liquidación 2019. urteko Likidazioa			Estimación de la Liquidación 2020. urteko Likidazioaren Aurreikuspena		Presupuesto 2021. urteko Aurrekontua	
G	Ekitaldian aplikatuak, iazkotik etorriak	2018	(+)	2019		2020	
G	Abenduaren 31n aplikatzeko daudenak	2019	(-)	2.020		2.021	
	GUZTIRA / TOTAL	2019	(+/-)	2.020		2.021	

Laburbilduz, aplikatu beharreko doiketa guztiak honako hauek izango dira:

KES-10 DOIKETEN LABURPENA RESUMEN DE AJUSTES SEC-10	Kobraketaren % % Cobro	Likidazioa Liquidación	Likidazioaren Aurreikuspena Estimación de la Liquidación	Aurrekontua Presupuesto
		2019	2020	2021
(-) * 1. doiketa: Zergen, Tasen eta bestelako sarreraren Kontabilitate Nazionalen erregistratzea.	-7,76%	-109.053,28	-146.160,45	-650.088,34
(+/-) * 2. doiketa: Sarreraren Egoerako 4. kapitulua: Entitatearen erregimenaren arabera, Estatuaren sarreretan edo tributu zedituetan parte hartzeagatik sarrerak.				
(+/-) * 6. doiketa: Administrazio publikoen arteko transferentzien kontsolidazioa				
(+) * 11. doiketa: Abalak gauzatzeko eta itzultzeko operazioak.				
(+/-) * 14. doiketa: Ekitaldian egindako gastuetatik aurrekontuan aplikatzeko daudenak.				
DOIKETA GUZTIAK / TOTAL AJUSTES		-109.053,28	-146.160,45	-650.088,34

5.2.2.2.- Aurrekontuen egonkortasunaren helburua betetzearen ebaluazioa:

Aurrekontuen egonkortasunaren helburua betetzearen ebaluazioa, behin aurreko puntuan zehaztutako KSE-10 doiketak eginda, hauek dira azaltzen dituen emaitzak:

AURREKONTUEN EGONKORTASUNA ESTABILIDAD PRESUPUESTARIA	Estimación de la Liquidación 2020. urteko Likidazioaren Aurreikuspena	Presupuesto 2021. urteko Aurrekontua
SARRERA EZ FINANTZARIOAK (I. KAP. -> VII)	22.224.676,64	23.633.457,17
INGRESOS NO FINANCIEROS (CAP. I ->VII)		
GASTU EZ FINANTZARIOAK (I. KAP. -> VII)	20.126.153,98	35.663.724,12
GASTOS NO FINANCIEROS (CAP. I ->VII)		
GUZTIRA / TOTAL	2.098.522,66	-12.030.266,95
"I" DOIKETAK (+/-)	-146.160,45	-650.088,34
AJUSTES "I" (+/-)		
"G" DOIKETAK (+/-)		
AJUSTES "G" (+/-)		
DEFIZITA // DEFICIT	1.952.362,21	-12.680.355,29
%	8,78%	-53,65%
EZARRITAKO MUGAREN % % LIMITE ESTABLECIDO	-0,12	-0,1
AURREKONTU EGONKORTASUNAREN HELBURUA BETETZAT JOTZEN AL DA? ¿SE DA POR CUMPLIDO EL OBJETIVO DE ESTABILIDAD?	BAI	EZ
PLAN EKONOMIKO-FINANTZARIOA EGITEKO BETEBEHARRA OBLIGACION DE REALIZAR PLAN ECONÓMICO FINANCIERO	EZ	BAI

Aurrekontuaren Espedienteak -12.680.355,29 euroko DEFIZITA ematen du (% -53,65), Nazio eta Eskualdeetako Kontuen Sistema Europarraren (KSE) terminoetan. Horregatik, espedienteak ez du betetzen aurrekontuen egonkortasunaren helburua. Eta, ondorioz, plan ekonomiko-finantzario bat egin beharko litzateke, uneko urtean eta hurrengoan egoera zuzenduko dela bermatzeko (2022-2023).

Plan ekonomiko-finantzario bat egiteko betebeharra zehazteko, apartatu honetan jarritako helburua bete izana 2021(e)ko aurrekontuaren likidazioaren bidez egiaztatuko da.

5.2.3.- Finantzen iraunkortasuna:

Entitate lokalek zor publikoaren muga ez gairatzeko obligazioa izango dute. Zor hori BPGaren % 2an finkatua dago 2021. urteko ekitaldirako, aurrekontuen egonkortasunari eta finantzen iraunkortasunari buruzko 2/2012 Lege Organiko apirilaren 27koak 13. artikuluan xedatzen duenaren arabera.

Entitate lokal guztien zor biziaren bolumenak ezingo du gairatu BPGaren portzentaje bat 2021-2023 epealdiko urte bakoitzean.

Zehazki, 2019 eta 2020. urteetako ekitaldietarako finkatu zen %a eta 2021, 2022 eta 2023. urteetako ekitaldietarako ezarri direnak honako hauek izan dira:

2019	2020	2021	2022	2023
2,80	2,30	2,00	2,00	1,90

BPGa udalez udal banatzen duen estatistika ofizialik ez dagoenez gero, horren estimazioa egin da, 2020 eta 2021. ekitaldietarako aurrekontuak prestatzerakoan, onesterakoan eta gauzatzekoan Gipuzkoako entitate lokalek jarraitu beharreko araei buruz Foru Aldundiak eman zuen instrukzioan jasotako baliokidetasunean oinarrituta; azkeneko hori 2019(e)ko azaroaren 14(e)an (218. GAO).

Instrukzio horren arabera, zorrari buruz bete beharreko helburua izango da 2020(e)ko abenduaren 31ko zor bizia 2020an likidatutako sarrera arrunten % 70,00 baino txikiagoa izatea; eta 2021(e)ko abenduaren 31ko zor bizia 2021an likidatutako sarrera arrunten % 70,00 baino txikiagoa izatea.

Zehazki, 2016 2017, 2018 eta 2019. urteetako ekitaldietarako finkatu zen %a eta 2019 eta 2020. urteetako ekitaldietarako ezarri direnak honako hauek izan dira:

2016	2017	2018	2019	2020	2021
80,00%	77,00%	75,00%	72,00%	70,00%	70,00%

5.2.3.1.- Udalaren Zor Bizia:

Indarrean dagoen araudiaren arabera, eta entitate honen zorpetzearen muga zehazte aldera, seinatu beharra dago entitate lokalaren zor bizia hurrengo hau dela:

FINANTZEN IRAUNKORTASUNA SOSTENIBILIDAD FINANCIERA	Estimación de la Liquidación 2020. urteko Likidazioaren Aurreikuspena	Presupuesto 2021. urteko Aurrekontua
▶ Aurreko ekitaldiko abenduaren 31n indarrean dauden operazioak, Operaciones Vigentes a 31 de diciembre del anterior ejercicio.	342.531,53	12.089.312,34
▶ Emandako abaletatik eratorritako arriskua Riesgo derivado de Aavales concedidos	(+)	
▶ Formalizatutako eta xedatu gabeko operazioak Operaciones formalizadas y no dispuestas	(+)	
▶ Urterako formalizatutako edo aurreikusitako operazioak, Operaciones formalizadas o previstas para el año.	(+)	
▶ Urterako aurreikusitako amortizazioak, Amortizaciones previstas para el año.	(-)	
ZOR BIZIA / DEUDA VIVA	0,00	12.089.312,34
KONTSIGNATZEKO DIRU-SARRERA ARRUNTEN TOTALA TOTAL DE INGRESOS CORRIENTES A CONSIDERAR	20.962.188,30	20.954.164,25
ZOR BIZIAREN % % DEUDA VIVA	0,00%	57,69%
EZARRITAKO MUGAREN % % LIMITE ESTABLECIDO	70,00%	70,00%
LEGEZKO MUGA LIMITE LEGAL	23.058.407,13	23.049.580,68
DIFERENTZIA LEGALA EUROTAN DIFERENCIA LEGAL EN EUROS	23.058.407,13	10.960.268,34
ZOR BIZIAREN HELBURUA BETETZAT JOTZEN AL DA? ¿SE DA POR CUMPLIDO EL OBJETIVO DE DEUDA PÚBLICA?	BAI	BAI
PLAN EKONOMIKO-FINANTZARIOA EGITEKO BETEBEHARRA OBLIGACION DE REALIZAR PLAN ECONÓMICO FINANCIERO	Ez	Ez

5.2.2.- Zorraren muga betetzearen ebaluazioa:

Aurreko kalkuluen eta aurkeztutako datuen arabera, 2020. urteko Likidazioaren Aurreikuspenaren espedientetik ateratzen den zor biziaren zenbatekoa, udalaren eta harekin erlazionatutako entitateen termino kontsolidatuetan, 2020ko abenduaren 31n 0,00 eurokoa izango litzateke; eta likidatutako baliabide arrunten zenbatekoa, sarrera afektatuen zenbatekoa kenduta, 20.962.188,30 eurokoa izango litzatekela.

Beraz, entitate honen zor biziaren portzentajea % 0,00(e)koa da [(zor bizia/sarrera arruntak) x 100], zorraren muga baino txikiagoa, muga hori % 70,00(e)an finkatua baitago 2020. urteko ekitaldirako. Beraz, likidazioaren aurreikuspenak beteko luke finantzen iraunkortasunaren helburua.

Bestalde, 2021ko abenduaren 31n, udalaren eta harekin erlazionatutako entitateen zor bizia 12.089.312,34 eurokoa izango dela aurreikusten da, eta horrek 2021. urtean aurreikusitako sarrera arrunten % 57,69 errepresentatzen du.

Beraz, 2021. urteko ekitaldirako Aurrekontuaren espedienteak bete egingo luke finantzen iraunkortasunaren helburua. Izan ere, zor biziaren portzentajea zorraren muga baino txikiagoa da; muga hori % 70,00(e)an finkatua baitago aipatutako ekitaldirako.

5.2.4.- Gastuaren erregela.

Erregelaren gastuaren helburua da gastu publikoak gehienez izan dezakeen igoerari muga bat ezartzea espainiar ekonomiaaren hazkundearen arabera.

Gipuzkoako Foru Aldundiak emandako instrukzioko 3. erregelari ezarritakoaren arabera, gastuaren erregela bete izana urteko ekitaldiaren likidazioan bakarrik egiaztatuko beharko da.

Hala ere, onetsi behar da gastu ez finantzarioaren gehienezko muga, aurrekontuen egonkortasunari eta finantzen iraunkortasunari buruzko 2/2012 Lege Organiko apirilaren 27koak 30. artikuluan xedatzen duenaren arabera.

Nolanahi ere, bidaltzea nahitaezkoa ez izateak ez du salbuesten hura bete beharretik, are gehiago kontuan izaten badugu Aurrekontuaren LIKIDAZIOKO unean bai ebaluatu behar dela hura betetzen dela. Hori dela eta, zuzentzearen irizpidea aplikatuz, eta ondorio informatibo soiltarako, espediente honen analisian magnitude horren betetze-maila ebaluatzen da.

A. Korporazio lokaletarako, Gastuaren Erregela betetzen da baldin eta, KSEaren terminoetan, korporazio lokal bakoitzeko gastu konputagarriak bi ekitaldi ekonomikoren artean izandako gorabeherak ez badu gaintzen Espainiako ekonomia epe ertaineko Barne-Produktu Gordinaren Hazkundearen Erreferentziazko Tasa (BPGHET); kasua hala bada, araudien aldaketatik izandako gehikuntza iraunkorren eta kobrantza-gutxitzeen zenbatekoan aldatua.

Gastu konputagarritzat hartuko dira Nazio eta Eskualdeetako Kontuen Sistema Europarraren terminoetan definitutako erabilera ez finantzarioak, zorraren interesak kanpo utzita, langabeziagatik prestazioetako gastu ez diskrezionala, Europar Batasunetik edo beste administrazio publiko batzuetatik etorritako funts helburudunen bidez finantzatutako gastuaren parte, eta komunitate autonomoei eta korporazio lokalei finantzazio-sistemekin lotuta egindako transferentziak.

Ekonomiako eta Lehiakortasuneko Ministerioari dagokio Espainiako ekonomia epe ertaineko barne-produktu gordinaren hazkundearen erreferentzia-tasa kalkulatzeko, Europako Batzordeak bere araudia aplikatzean erabilitako metodologiari jarraituz. Tasa hori lege honen 15.5 artikuluan aipatzen duen Espainiako ekonomia epeko igoerari buruzko txostenean argitaratuko da.

Zehazki, 2019 eta 2020. urteetako ekitaldietarako eta 2021, 2022 eta 2023. urteetako ekitaldietarako finkatutako gastu-erregela honako hauek izan dira:

2019	2020	2021	2022	2023
2,70	2,90	3,00	3,20	3,30

Ekitaldi bateko gastu konputagarriaren bariazio-tasa hurrengo formula honen arabera kalkulatu da:

$$\text{Gastu Konputagarriaren Bariazio-Tasa (\%)} = \left(\frac{\text{n urteko Gastu konputagarria}}{\text{n-1 urteko Gastu Konputagarria}} - 1 \right) * 100$$

"n-1" urteko (2019) gastu konputagarriaren kalkulua ekitaldi horretako aurrekontuaren likidaziotik aterako da. Halakorik ez badago, haren estimazio bat hartuko da.

“n” urteko (2020) gastu konputagarriaren kalkulua ekitaldi horretako aurrekontutik aterako da, edota, kasua hala bada, haren likidaziotik edo haren estimaziotik.

B. “Gastu konputagarriaren” kalkulua egiteko, “erabilera ez finantzariotzat” hartzen dira aurrekontuko I.etik VII.era bitarteko kapituluetao gastuak.

«Erabilera ez finantzarioetatik» abiatuta, zorraren interesekin zerikusia duten gastuak deskontatzen ditugu (Gastu finantzarioen III. kapitulu osoa, salbu 301, 311, 321, 331 eta 357. azpikontzeptuak, zeinetan jasotzen baitira maileguak, zorrak eta beste operazio finantzario batzuk jaulkitzearen, formalizatzearen, aldatzearen eta kanzelatzearen gastuak, bai halaber abalak gauzatzearen ondoriozko gastuak), eta “erabilera ez finantzarioak (zorraren interesak izan ezik)” aterako dugu.

5.2.4.1.- Kontuen Sistema Europarreko (KSE-10) irizpideen arabera aurrekontuko gastuak erabilera ez finantzarioen kontzeptura egokitzeo egin beharreko doiketak:

Indarrean dagoen araudiko kalkuluaren metodologiari erreparatuz, eta gure aurrekontuko kontabilitatearen eta konfigurazioaren zertzelada partikularren arabera, beharrezkoa da hurrengo doiketa hauek egitea:

*** Inbertsioak besterentzearen doiketa: Sarrerren Egoerako 6. kapitulu**

Kontuen Sistema Europarrak unitate publiko baten inbertsioa gastu ez finantzariotzat jotzen du, aktibo finko, material eta immaterialak eskuratzearen (erosketako prezioan edo produkzioko kostuan) eta besterentzearen (salmentako prezioan) arteko aldearen arabera baloratu behar dena.

> DOIKETA: Beraz, erabilera ez finantzario txikiagotzat jo beharko dira —eta, ondorioz, gastu txikiagoaren DOIKETA NEGATIBOA (-) egin beharko da— Sarrerren Aurrekontuko 6. kapituluari jasotako lursail eta inbertsio errealak besterentzeagatik onartutako eskubideak.

Hala ere, ez dira deskontatuko Aurrekontuen 6. kapituluako eskubide onartuak, izaera urbanistikoko operazioetatik (urbanizazio-kuotak, aprobetxamendu urbanistikoak...) edo kapital-operazioengatik itzuleretatik datozen diru-sarrerrenak.

Horrek esan nahi du inbertsio bat balioetsi behar dela, SECen ondorioetarako, eskuratze-urteko Aurrekontuko or-en eta besterentze-urteko Aurrekontuko aktiboen besterentzeen (Dr) arteko diferentziaren arabera.

G / S G / I	Doiketaren % Ajuste	Likidazioa Liquidación	Likidazioaren Aurreikuspena Estimación de la Liquidación	Aurrekontua Presupuesto
		2019	2020	2021
I	Hasierako Kredituak Créditos Iniciales		21.491,38	460.875,12
I	(-) Urbanizazio-kuotak (-) Cuotas de Urbanización		-21.491,38	
I	(-) Aprobetxam. Urbanistikoak (-) Aprovecham. Urbanísticos			-460.875,12
GUZTIRA / TOTAL		(-)		

*** 11. doiketa: Abalak gauzatzeko eta itzultzeko operazioak.**

Udalak abal bat eraukitzeak ez du kontabilitateko anotaziorik sorrarazten aurrekontuan. Nolanahi ere, Udalak eman duen abal bat gauzatzen bada, hark abalaren pagamenduari aurre egin behar dio, eta, aurrekontu aldetik, gastuen aurrekontuko VII. kapituluari erregistratzen da.

Kontabilitate nazionalean, operazio horrek izaera ez finantzarioa du; beraz, pagatutako zenbatekoari dagokion gastu ez finantzario handiago bat onartu beharko litzateke, eta horrek gastu handiagoa lekarke.

► Doiketa positiboa (+): abala gauzatzearen ondorioz pagatutako kopuruaren zenbatekoa.

G / S G / I	Doiketaren % Ajuste	Likidazioa Liquidación	Likidazioaren Aurreikuspena Estimación de la	Aurrekontua Presupuesto
		2019	2020	2021
G	Gauzatuo Abalak Avaes ejecutados			



*** 14. doiketa: Ekitaldian egindako gastuetatik aurrekontuan aplikatzeke daudenak.**

Gastuaren Erregelari lehendik seinalatutakoaren arabera.

- ▶ Doiketa negatiboa (-): «413. kontuaren» azken saldoa hasierako saldoa baino txikiagoa bada.
- ▶ Doiketa positiboa (+) : «413. kontuaren» azken saldoa hasierako saldoa baino handiagoa bada.

G / S G / I	Doiketaren Zenbatekoa Importe Ajuste		Doiketaren Zenbatekoa Importe Ajuste		Doiketaren Zenbatekoa Importe Ajuste	
	Liquidación 2019. urteko Likidazioa		Estimación de la Liquidación 2020. urteko Likidazioaren Aurreikuspena		Presupuesto 2021. urteko Aurrekontua	
G Ekitaldian aplikatuak, iazkotik etorriak	2018	(-)	2019		2020	
G Abenduaren 31n aplikatzeke daudenak	2019	(+)	2020		2021	
GUZTIRA / TOTAL	2019	(+/-)	2020		2021	

*** Doiketa: Pagamendua geroratuta egindako erosketak.**

Kontuen Sistema Europarrak ezartzen duenaren arabera, pagamendua geroratuta egindako erosketak ondasuna korporazio lokalari entregatzen zaion edo haren eskura uzten den unean erregistratu behar dira, haren zenbateko totalarekin.

Aurrekontuetako kontabilitateak eta kontabilitate nazionalak (KSE) inbertsioaren inputazioan dituzten irizpide ezberdinak direla eta, hurrengo doiketa hauek egin beharko dira:

- ▶ Doiketa positiboa (+): ondasunaren entregatzea gertatzen den ekitaldian, aktiboaren balio totalaren eta ondasuna eskuratzeari buruzko gastuen obligazio onartuen eta Aurrekontuari inputatuen arteko diferentziaren zenbatekoan. Gastu ez finantzario handiagoa errepresentatuko du.
- ▶ Doiketa negatiboa (-): hurrengo ekitaldian, gastu ez finantzario txikiagoaren doiketa bat egin beharko da, aktiboa pagatzeko geroratutako eta aurrekontuari obligazio onartu gisa inkorporatutako zenbatekoan.

G / S G / I	Doiketaren Zenbatekoa Importe Ajuste	Likidazioa Liquidación	Likidazioaren Aurreikuspena Estimación de la Liquidación	Aurrekontua Presupuesto
		2019	2020	2021
G	Abenduaren 31n aplikatzeke daudenak Pago aplazado a 31 diciembre			

*** Leasing edo errentamendu finantzarioko operazioen doiketa: Gastuen Egoerako 6. kapitulu**

Leasingeko operazioek printzipalagatik aktibo ez finantzario baten erosketak kontabilizatzea inplikatzeko dute.

Kontabilitate nazionalan, errentamendu finantzario (leasing) bidez eskuratutako aktiboak errentariaren (Udala) kontuetan erregistratzen dira ondasunaren jabetza ekonomikoa eskuratzen duen unean, hau da, kontratua sinatzen den unean.

Aurrekontuko kontabilitatean, ordea, Udalak urtero kontabilizatzen du (leasinga sinatutako urtea barne), amortizazioa Inbertsio errealean 6. kapitulan eta interesak Gastu finantzarioaren 3. kapitulan.

Beraz, kontratuaren sinaketa gertatzen den urtean doiketa POSITIBOA (+) egin beharko da, aktiboaren balio totalaren eta obligazio onartuen eta Aurrekontuari inputatuen (III. eta VI. kapituluak) arteko aldearen zenbatekoan, gastu konputagarri handiago bat badagoela erakutsi dezan.

Hurrengo ekitaldian, eta leasingaren bizitzan zehar, 6. kapitulan bada gastu bat aurrekontuaren ondorioetarako (amortizazio-kuota), eta beste bat 3. kapitulan (interesak), baina ez KSE-10aren ondorioetarako. Gero doiketa NEGATIBOA (-) egin behar da, onartutako eta gastuen aurrekontuari (III. eta VI. kapituluak) inputatutako obligazioen balioaren zenbatekoan (gastu konputagarri txikiagoa).

Erosketako aukeraren ekitaldiko urtean (azken urtean), 6. eta 3. kapituluaren gainean doiketa negatiboa eginez gero (gastu txikiagoa), haren zenbatekoa azken urteko amortizazio-kuotaren eta erosketako aukeraren arteko batura litzateke. Doiketa negatiboa (defizit txikiagoa edo superabit handiagoa).

G / S G / I	Urtea Año		Estatuko kontabilitatea Contab. nacional	Aurrekontuko Kontabilitatea Contabilidad Presupuestaria		Doiketaren Zenbatekoa Importe Ajuste
			Valor Total Activo	Cap.6. Kap	Cap. 3. Kap.	
G	Leasinga sinatutako urtea Año de la Firma del leasing	2019	(+/-)			
G	Leasingaren bizitzan zehar Durante la vida del leasing	2019	(-)			
G	Leasinga sinatutako urtea Año de la Firma del leasing	2020	(+/-)			
G	Leasingaren bizitzan zehar Durante la vida del leasing	2020	(-)			
G	Leasinga sinatutako urtea Año de la Firma del leasing	2021	(-)			
G	Leasingaren bizitzan zehar Durante la vida del leasing	2021	(-)			

G / S G / I	Doiketaren Zenbatekoa Importe Ajuste	Likidazioa Liquidación	Likidazioaren Aurreikuspena Estimación de la Liquidación	Aurrekontua Presupuesto
		2019	2020	2021
G	Errentamendu finantzarioko operazioak (leasing) Operaciones de Arrendamiento Financiero (leasing)	0,00	0,00	0,00

*** Doiketa: EBko / APetako funts finalistekin finantzatutako gastuak.**

Diru-sarreretan ordaina duten gastuak dira, eta ez da mugatzen haien hazkundera, ez baitakarte gastuaren hazkunderik termino estrukturalatan.

Jasotako diru-laguntzetatik, finalistak ez direnak doitzen ditugu.

DIRUSARRERAK INGRESOS	2021	2020	2019	2018	2017
4. Kap. Transferentziak Cap- 4 Transferencias	13.386.379,83	12.879.202,98	13.847.786,39	13.607.946,48	14.131.618,01
(-) UFFF / FFFM	-12.284.700,00	-11.858.036,53	-12.962.491,63	-12.602.472,18	-11.308.271,60
(-) Itundu gabeko Zergak Impuestos no concertados	-21.859,18	-21.859,18	-20.716,70	-21.068,48	-20.349,02
(-) Finalistak ez diren Bestelak. Otros No finalistas	0,00	0,00	-7.626,52	-500,00	-500,00
	1.079.820,65	999.307,27	856.951,54	983.905,82	2.802.497,39
7. Kap. Transferentziak Cap- 7 Transferencias	1.138.597,15	241.689,69	537.838,66	105.712,08	564.647,53
(-) Finalistak ez diren Bestelak. Otros No finalistas	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
	1.138.597,15	241.689,69	537.838,66	105.712,08	564.647,53
GUZTIRA / TOTAL	2.218.417,80	1.240.996,96	1.394.790,20	1.089.617,90	3.367.144,92

G / S G / I	Doiketaren Zenbatekoa Importe Ajuste	Likidazioa Liquidación	Likidazioaren Aurreikuspena Estimación de la Liquidación	Aurrekontua Presupuesto	
		2019	2020	2021	
G	Finantzaketa lotua duen gastuak Gastos con Financiación Afectada	(-)	-1.394.790,20	-1.240.996,96	-2.218.417,80

*** Aurrekontuaren gauzatze-maila**

Aurrekontuaren azken gauzatzeak desbideratzeak izan ohi ditu aurrekontuko hasierako kredituei buruz. Arrazoi horregatik, hasierako aurrekontuetan gastu konputagarria kalkulatzeko, «gastuaren gauzatze-mailaren arabera doiketa» egingo da.

Doiketa hori aurreko urteetan metatutako esperientziaren arabera estimatuko da, aurrekontuko aurreikuspenen eta benetako gauzatzearen arteko aldeak aintzat hartuta eta atipikotzat jo daitezkeen balioak kenduta.

Doiketa honen ondorioetarako, gastu bat BALIO ATIPIKOTZAT joko da baldin eta hura sartzeak desitxuratu egiten badu aurrekontuaren gauzatze-mailaren portzentaje estimatuaren muga gisa operatzen duen batez besteko aritmetikoa.

- ▶ Ohiz kanpoko izaera duten gastuak, emergentziazko egoeretatik, hondamendietatik, epai judizialen araberako kalte-ordainetatik eta halakoetatik eratorriak.
- ▶ Europar Batasunetik edo beste administrazio publikoetatik datozen diru-laguntza finalistekin finantzatutako gastuak, zeren gastu horiek ez baitira sartzen, gastu konputagarriaren kalkuluan, gastuaren erregela determinatzeko.
- ▶ Lursailak eta inbertsio errealak besterentzetik datozen eta ekitaldi berean onartu diren eskubideekin finantzatutako gastuak, zeren eta gastu konputagarriaren kalkuluan inbertsio netoa hartzen baita kontuan.

Partikularki, gehienez konputa daitekeen gastua estimatze aldera gauzatutakoaren ehunekoak totalaren aldean daukan kopuruzko garrantzia dela eta (kontuan izan gabe aurrekontua gehitu duten kreditu aldatuetan onartutako obligazioen eragina), portzentaje-muga bat zehaztuko dugu gauzatu gabeko gastuarentzat, azken bost ekitaldietako batez bestekoa litzatekeena, hasierako kredituen artean onartutako baimenduak baloratua.

	2017	2018	2019	2020	2021	Doiketaren % Ajuste
AURREKONTU GUZTIRA PRESUPUESTO TOTAL	82,14%	80,38%	76,33%	68,10%	70,45%	75,48%
1. → 5.Kap. ERAGIKETA ARRUNTAK Cap.1 → 5. OPERACIONES CORRIENTES	90,00%	92,85%	88,23%	86,80%	85,05%	88,59%
6. → 9.Kap. KAPITAL-ERAGIKETAK Cap.6 → 9. OPERACIONES DE CAPITAL	38,36%	44,71%	43,73%	23,56%	56,67%	41,41%

Aurreikuspenak aplikatuta, doiketa-kopuru hauek ematen dituela, zeinek MURRIZTU egiten baitituzte indarrean dagoen gastuen aurrekontuko 1. kapitulutik 7.era artekoak.

G / S G / I	* <i>Gastuaren gauzatze-maila</i> <i>Grado de ejecución del Gasto</i>	Doiketaren % Ajuste	Hasierako Kredituak Créditos Iniciales	Doiketaren Zenbatekoa Presupuesto 2021. urteko Aurrekontua
G	(-) 1. → 5.Kap. ERAGIKETA ARRUNTAK Cap.1 → 5. OPERACIONES CORRIENTES	88,59%	22.010.334,33	-2.512.161,47
G	(-) 6. → 7.Kap. KAPITAL-ERAGIKETAK Cap.6 → 7. OPERACIONES DE CAPITAL	41,41%	13.664.989,79	-2.769.768,59
TOTAL / GUZTIRA			35.675.324,12	-5.281.930,06

Ekitaldiko 6. kapituluaren garrantzi handiko bi obra daudenez, hala nola kiroldegikoak eta Atsobakar zelaikoak, horien exekuzioa % 100ekoa izango dela pentsatuko dugu, eta ez ezarritako ehunekoari, eta, beraz, ateratzen den ehunekoa gehituko dugu.

*** Doiketa: Inbertsio finantzario jasangarriak**

Baldintza hau bete behar da: finantza-aldetik jasangarritzat jotzen diren inbertsioak gauzatzearen ondoriozko gastua ez zenbatzea gastu-arauaren ondorioetarako, inbertsio horiek Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoaren (LOEPYSF) seigarren xedapen gehigarrian aurrekontu-superabita bideratzeko ezarritako arau berezien aplikazioaren esparruan egitea.

Inbertsio finantzarioki jasangarritzat hartuko da baldintza hauek guztiak betetzen dituena:

- * Toki-erakundeak egunean izatea zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak.
- * Inbertsioak toki-erakundearen aurrekontuen egitura onartzen duen abenduaren 3ko EHA/3565/2008 Aginduaren I. eranskinean aurrez ezarritako eta jasotako programa-taldeetan isla izan beharko du aurrekontuan.
- * Kanpoan geratzen dira:
 - Bost urtetik beherako bitzta erabilgarria duten inbertsioak.
 - Altzariak, tresnak eta ibilgailuak erosteari buruzkoak, salbu eta garraio-zerbitzu publikoa ematera bideratzen badira.
- * Egiten den gastua aurrekontuaren gastuen egoera-orriko 6. kapituluari egotzi ahal izango zaio.



* Inbertsioa gauzatzen, mantentzen eta likidatzen den bitartean, toki-korporazioak aurrekontu-egonkortasuneko eta zor publikoko helburuak bete ahal izatea.

* Dagokion gastu-espedita hastea eta gauzatutako inbertsioetik eratorritako betebeharrak ekonomiko guztiak aitortzea.

Partida	Programa	Likidazioa	Likidazioaren	Aurrekontua
		Liquidación	Aurreikuspena	Presupuesto
		2019	2020	2021
(-) 1.xxxx.6xxxx.xxxxx	xxxxxxx			
(-) 1.xxxx.6xxxx.xxxxx	0			
DOIKETA GUZTIAK / TOTAL AJUSTES				

*** Ezohiko edo salbuespeneko eragiketengatikoko beste doikuntza batzuk (epai judizialak, etab.)**

Funtsean egiturazkoak ez diren gastuak, errepikakorrak ez direnak eta, beraz, Erakundearen egiturazko saldoari eragiten ez diotenak. LOEPYSFek zehazten du toki-erakunde batek ekitaldian lor dezakeen egiturazko gastu ez-finantzarioaren muga. Epai judizialen ondorioz, adibidez, kalte-ordainetatik eratorritako ezohiko gastuak ezohiko gastutzat har daitezke, eta halakotzat egokitu; izan ere, azken finean, ezohiko eta egoeraren araberrako egoerak gertatzen dira, eta, beraz, ez dute eraginik erakundearen egiturazko saldoan.

Doiketaren Zenbatekoa Importe Ajuste	Likidazioa	Likidazioaren	Aurrekontua
	Liquidación	Aurreikuspena	Presupuesto
	2019	2020	2021
(-) 601/2016 prozedura arruntaren baio justuaren ordainketa. EHJZGko Administrazioarekiko Auzien Salaren 3. atala Pago del justiprecio sentencia procedimiento ordinario 601/2016 seccion 3ª de la sala de lo contencioso-admtvo del TSJPV.	5.882.574,93		

Laburbilduz, aplikatu beharreko doiketa guztiak honako hauek izango dira:

GASTUAREN ERREGELAKO DOIKETEN LABURPENA RESUMEN DE AJUSTES REGLA DEL GASTO	Likidazioa	Likidazioaren	Aurrekontua
	Liquidación	Aurreikuspena	Presupuesto
	2019	2020	2021
(-) * Inbertsioak besterentzearen doiketa: Sarreraren Egoerako 6. kapitulua			
(+) * 11. doiketa: Abalak gauzatzeko eta itzultzeko operazioak.			
(+/-) * 14. doiketa: Ekitaldian egindako gastuetatik aurrekontuan aplikatzeke daudenak.			
(+/-) * Doiketa: Pagamendua geroratuta egindako erosketak.			
(+/-) * Leasing edo errentamendu finantzarioko operazioen doiketa: Gastuen Egoerako 6. kapitulua			
(-) * Doiketa: EBko / APetako funts finalistekin finantzatutako gastuak.	-1.394.790,20	-1.240.996,96	-2.218.417,80
(-) * Aurrekontuaren gauzatzeko-maila			-5.281.930,06
(-) * Doiketa: Inbertsio finantzario jasagarriak			
(-) * Ezohiko edo salbuespeneko eragiketengatikoko beste doikuntza batzuk (epai judizialak, etab.)	-5.882.574,93		
DOIKETA GUZTIAK / TOTAL AJUSTES	-7.277.365,13	-1.240.996,96	-7.500.347,86

*** Kobrantzako gehikuntza / murrizketa iraunkorrak**

2020. urteko ekitaldirako, Udal honek araudi-aldaketak onetsi zituen (ordenantza fiskalak aldatzea, balio katastralen errebisioa, tasa eta prezio publiko berriak ezartzea. etab.), eta horrek ez du esan nahi diru-bilketan etengabe gora egingo denik.

2021. urteko ekitaldirako, Udal honek araudi-aldaketak onetsi zituen (ordenantza fiskalak aldatzea, balio katastralen errebisioa, tasa eta prezio publiko berriak ezartzea. etab.), eta horrek ez du esan nahi diru-bilketan etengabe gora egingo denik.

5.2.4.2.- Gastu konputagarria:

Espedientetik eratortzen den gastu konputagarriaren kalkuluak, aurreko puntuan zehaztutako Gastuaren Erregelako doiketak behin eginda, emaitza hauek ageri ditu:

GASTUAREN ERREGELA REGLA DEL GASTO	Liquidación 2019. urteko Likidazioa	Estimación de la Liquidación 2020. urteko Likidazioaren Aurreikuspena	Presupuesto 2021. urteko Aurrekontua
A) ERABILERA EZ FINANTZAI OAK (kap:1etik 7ra): EMPLEOS NO FINANCIEROS (O)	27.407.390,10	20.126.817,14	35.675.324,12
Zorraren interesak Intereses de la Deuda (-)	-864,24	-663,16	-11.600,00
B) Doitutako ERABILERA EZ FINANTZAI OAK: EMPLEOS NO FINANCIEROS Ajustados	27.406.525,86	20.126.153,98	35.663.724,12
Gastu-erregelaren doiketak Ajustes Regla del Gasto (+/-)	-7.277.365,13	-1.240.996,96	-7.500.347,86
C) DOITUTAKO GASTU KONPUTAGARRIA: GASTO COMPUTABLE AJUSTADO	20.129.160,73	18.885.157,02	28.163.376,26

Aurreko kalkulu horietan eta aurkeztutako datuetan oinarrituta, zehaztutako doiketak egitea beharrezkoa izanik, ikusten da gastu konputagarri kontsolidatua 18.885.157,02 eurokoa dela 2020. urtean, eta 28.163.376,26 eurokoa 2021. urtean.

5.2.4.3.- Gastu ez finantzarioaren muga :

Gastu ez finantzarioaren muga Udalak hasiera batean aurreikusitako edo ekitaldian zehar ager daitezkeen gastu-erantzukizun guztien artean esleitu ahalko dituen baliabide erabilgarrien gehieneko goi-muga da.

Horrela, gastu ez finantzarioaren mugak gastu-erregelaren helburua osagarritzen du, gastu publikoaren hazkundera mugatzeko xedearekin, defizitaren helburua eta zor publikoaren helburua betetzen lagunduko duen gastu-tope bat ezarritik.

Espedientetik eratortzen den gastu ez finantzarioaren mugaren kalkuluak, lehenago zehaztutako Gastuaren Erregelako doiketak behin eginda, emaitza hauek ageri ditu:

GASTU EZ FINANTZARIOAREN MUGA LIMITE DEL GASTO NO FINANCIERO	Liquidación 2019. urteko Likidazioa	Estimación de la Liquidación 2020. urteko Likidazioaren Aurreikuspena	Presupuesto 2021. urteko Aurrekontua
EZARRITAKO MUGAREN % % LIMITE ESTABLECIDO		2,90%	3,00%
C) DOITUTAKO GASTU KONPUTAGARRIA: GASTO COMPUTABLE AJUSTADO	20.129.160,73	18.885.157,02	28.163.376,26
BPGaren hazkundearen erreferentzia tasa Tasa de referencia del crecimiento del PIB (+)		583.745,66	566.554,71
Kobrantzaren gehitze / gutxitze iraunkorral (+/-) Aumentos / Reducciones permanentes de la Recaudación (+/-) (+/-)		0,00	-837.006,00
GASTU EZ FINANTZARIOAREN MUGA: LIMITE DEL GASTO NO FINANCIERO	20.129.160,73	20.712.906,39	18.614.705,73

Egindako kalkuluaren arabera, eta aurrekontuen egonkortasunaren helburua eta gastuaren erregela betetz, 2020. urteko ekitaldirako gastu ez finantzarioaren gehienezko muga 20.712.906,39 eurokoa da.

Beste aldetik, 2021. urteko ekitaldirako gastu ez finantzarioaren gehienezko muga 18.614.705,73 eurokoa izango da.

5.2.4.4.- Gastuaren erregelaren betetze-mailaren ebaluazioa:

	Liquidación 2019. urteko Likidazioa	Estimación de la Liquidación 2020. urteko Likidazioaren	Presupuesto 2021. urteko Aurrekontua
Gastuaren Muga - Doitutako Gastu konputagarria:		1.827.749,37	-9.548.670,53
Limite del Gasto - Gasto Computable Ajustado			
GASTUAREN ARAUAREN HELBURUA BETETZAT JOTZEN AL DA? ¿SE DA POR CUMPLIDA LA REGLA DEL GASTO?		BAI / SI	EZ / NO
PLAN EKONOMIKO-FINANTZARIOA EGITEKO BETEBEHARRA OBLIGACION DE REALIZAR PLAN ECONÓMICO FINANCIERO		EZ / NO	BAI / SI

Aurreko kalkuluetan oinarrituta, ikusten da 2020(e)ko ekitaldirako gastu konputagarriak 1.827.749,37 euroko zenbatekoa ez duela gainditzen Espainiako ekonomiaren epe ertaineko Barne Produktu Gordinaren hazkunde-tasa erreferentzialaren arabera (%2,90). Beraz, 2020(e)ko ekitaldirako Likidazioaren Aurreikuspena espediente BETETZEN DU gastu-araua.

Kontuan izan behar da ezen, jadanik ez dela nahitaezkoa Gastuaren Erregelaren betetze-maila sartzea aurrekontua onetsi ahal izateko. Hala ere, onetsi behar da gastu ez finantzarioaren gehienezko muga, aurrekontuen egonkortasunari eta finantzen iraunkortasunari buruzko 2/2012 Lege Organiko apirilaren 27koak 30. artikuluan xedatzen duenaren arabera.

Nolanahi ere, nahitaezkoa ez izateak ez du salbuesten hura bete behar izatetik aurrekontua LIKIDATZEKO unean. Hori dela eta, zuzentzearen irizpidea aplikatuz, magnitude horren betetze-maila ebaluatzea egokia litzateke Udalaren Aurrekontuaren onespenean.

5.2.5.- KONKLUSIOAK

Aurreko kalkulu horiek ikusita, eta Udalaren Aurrekontua. urteko ekitaldiko 2021ren espedientearen onespena dela eta, Aurrekontuen egonkortasunari buruzko 18/2001 Lege abenduaren 12koa entitate lokalei aplikatuz garatzeko erregelamenduaren arabera, zeina onesten baitu azaroaren 2ko 1463/2007 errege-dekretuak, informatzen da hau dela lortutako emaitza:

1. Udal honek EZ LUKELA BETEKO aurrekontuen egonkortasunaren helburua, orekako edo superabiteko egoeratzat ulertua finantzatzeko ahalmenaren terminoetan, KSE 2100ean jasotako definizioaren arabera.
2. Udal honen BETEKO LUKELA zor publikoaren mugaren helburua, indarrean dagoen araudiaren arabera % 70,00(e)an ezarria.
3. Udal honek BETEKO LUKELA Gastuaren Erregelaren helburua, ulertuta halako egoeratzat non gastu konputagarriak ez baitu gainditzen aurtengo ekitaldiari dagokion BPGaren hazkundearen erreferentziazko tasa.

Ondorioz, toki-erakunde honek 2021rako aurrekontu-egonkortasunaren eta finantza-iraunkortasunaren helburu guztiak eta gastuaren araua, hasiera batean, EZ lituzke beteko. Beraz, tokiko erakunde hori behartuta egongo litzateke plan ekonomiko-finantzario bat onartzera.

Hala ere, Plan ekonomiko-finantzario bat onartzeko betebeharra zehazte aldera, eta Gipuzkoako Foru Aldundiak 2020(e)ko azaroaren 14(e)an emandako instrukzioko 1., 2. eta 3. erregeletan ezarritakoaren arabera, Aurrekontuen egonkortasunaren helburua, zor publikoaren helburua eta gastuaren erregelaren helburua bete izana 2021. urteko aurrekontuaren likidazioaren bidez egiaztatuko da.

Horregaitik, onartzekoa litzateke espediente, soilik aurrekontuen arloko arauari erreparatuz tramitatzea, organo eskumendunak onespena emateari begira.

Adierazi behar da COVID pandemiaren ondorioz 2020ko eta 2021eko ekitaldietarako zerga-arauak eten direla.

Hala ere, 2020rako eta 2021erako zerga-arauak eteteak ez du esan nahi Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko Lege Organikoaren aplikazioa etengo denik, ez eta gainerako araudi aplikagarria ere; beraz, aurreko urteetako jokabide zuhur berarekin lan egiten jarraitu beharko dugu, finantza- eta aurrekontu-baldintzei dagokienez.

Egungo aurreikuspenetan aldaketarik gertatu ezean, 2022ko ekitaldian zerga-arauak berraktibatuko dira, eta beharrezkoa izango da 2022ko likidazioak gastu-araua eta aurrekontu-egonkortasunaren eta zor publikoaren helburua betetzea.

Hala ere, ez dakigu 2022ko ekitaldiko gastu-araua nola zenbatuko den eta zein zifratan finkatuko diren BPGren erreferentzia-tasa eta aurrekontu-egonkortasunaren eta zor publikoaren helburua.

Beraz, Ogasun Ministerioak hurrengo ekitaldian emango dituen jarraibideen zain egon beharko dugu.

5.2.6.- Aurrekontu-markoa:

Aurrekontua epe ertaineko aurrekontu-esparru batean kokatu behar da, eta horren bidez aurrekontu-egonkortasunaren eta zor publikoaren helburuekin bat datorren aurrekontu-programazioa bermatuko da. Epe ertaineko aurrekontu-esparruak gutxienez hiru urteko epea hartuko du.

Udalak, helburu horretarako, 2021-2023 epealdirako Epe-ertainerako aurrekontu Plana onetsia du. Horregaitik, aurrekontuen proiektuak betetzen du aurrekontuen egonkortasunari eta finantzen iraunkortasunari buruzko 2/2012 Lege Organiko apirilaren 27koak 29. artikuluan ezarritakoa.

5.2.7.- TXOSTEN ERANTSIA

Udal-kontuen egonkortasunaren eta jasangarritasunaren egoerari eta egoerari buruzko informazioa osatzeko planteatutako egoeraren aurrean, txosten hau erantsi da.

5.2.7.1.- DIRUZAINZAKO GERAKINAREN ETA AURREZKIAREN BILAKAERA (G1+G2+G4-I)

Likidazioaren emaitzatik diruzaintzako gerakin bat eratortzen da gastu orokorretarako eta aurrezki garbi positiboetarako, eta hala izan da azken aurrekontu-ekitaldietan.

A).- DIRUZAINZAKO GERAKINAREN BILAKAERA

2015	2016	2017	2018	2019	2020
2.773.708,92	4.572.729,97	5.101.857,65	9.070.264,73	9.258.313,52	10.225.540,98

B).- AURREZKI GORDINAREN BILAKAERA (G1+G2+G4-I)

DESKRIBAPENA DESCRIPCION	2017	2018	2019	2020	2021
SARRERA INGRESO	24.410.100,99	22.520.483,75	23.938.119,00	21.961.495,57	22.033.984,90
GASTUA GASTO	19.726.099,29	17.051.621,99	17.444.996,94	17.650.537,61	21.998.734,33
<hr/>					
AURREZKI GORDINA AHORRO BRUTO	4.684.001,70	5.468.861,76	6.493.122,06	4.310.957,96	35.250,57
<hr/>					
AURREZKI GORDIN ERLATIBOA AHORRO BRUTO RELATIVO	19,19%	24,28%	27,12%	19,63%	0,16%

C).- AURREZKI GARBIAREN BILAKAERA (G1+G2+G3+G4+G9-I)

DESKRIBAPENA DESCRIPCION	2017	2018	2019	2020	2021
SARRERA INGRESO	24.410.100,99	22.520.483,75	23.938.119,00	21.961.495,57	22.033.984,90
GASTUA GASTO	20.329.930,25	17.395.270,13	17.788.392,78	17.993.732,30	22.010.334,33
<hr/>					
AURREZKI GARBIA AHORRO NETO	4.080.170,74	5.125.213,62	6.149.726,22	3.967.763,27	23.650,57
<hr/>					
AURREZKI GARBI ERLATIBOA AHORRO NETO RELATIVO	16,72%	22,76%	25,69%	18,07%	0,11%

2021. urtearen ekitaldiko Aurrekontuaren Aurrezki Garbia positiboa izango litzateke, 23.650,57 €-koa (% 0,11).

Ondorioz, Aurrezpen netoa positiboa denez gero eta kapital biziaren kopuru totala (12.089.312,34 €) likidatutako edo sorrarazitako diru-sarrera arrunten % 70 baino gutxiago denez gero (15.373.046,90 €) ahalko da epe luzerako kreditu-operazio berriak itundu inbertsioak finantzatzeko.

Ondorio horietarako, aurrezki garbi gisa ulertzen da sarrerren egoerako lehenengo kapitulutik bosgarrenera bitartean (biak barne) likidatutako eskubideen eta gastuen egoerako lehenengo, bigarren eta laugarren kapituluek onartutako obligazioen arteko diferentzia, proiektatutako operazioaren eta oraindik itzultzeke dauden mailegu eta jesapenetako bakoitzaren (norberarenak eta hirugarrenei abalatuak) urte bateko amortizazio-kuota teorikoan (interesak + amortizazioa) gutxitua.

Aurrezki garbiaren eta zorpetze-mailaren kalkuluan konputatu beharreko sarrera arruntak determinatzeko, deskontatu egingo da kapital-operazioei afektatutako sarrerren kopurua, bai eta 1etik 5era bitarteko kapituluei aplikatutako bestelako sarrera ohiz kanpokoen kopurua ere, beren afektazio legalagatik eta/edo izaera ez errepikariagatik ez baitute sarrera arrunten kontsiderazioa.

Kapital bizia kalkulatzeko orduan, aurreko urteko abenduaren 31n indarrean dauden operazio guztiak hartuko dira kontuan, abaletatik deduzitutako arriskua barne, eta kopuru horri gehitu zaizkio, kasua hala bada, formalizatutako operazioen saldo erabili gabeak eta proiektaturiko operazioaren zenbatekoa. Zenbateko horretan ez dira sartzen Foru Aldundiari bueltatu behar zaizkion saldoak, UFFFan parte hartzearen behin betiko likidazioetatik eratorriak.

D).- ZOR PUBLIKOAREN HELBURUA BETETZEA

2020(e)ko abenduaren 31n, erakunde publiko edo pribatuekiko pasiboa 0,00 eurokoa zen, finantzaketengatik eta/edo emandako abalengatik.

Egindako aurrekontu-likidaziotik kendutako eragiketa arruntengatik likidatutako baliabideen gaineko zor biziaren ehunekoa %57,69 da, eskatutako mugatik oso urrun (%70,00), eta horrek zorpetzeko ahalmen handia ematen digu .

E).- AURREKONTU-DEFIZITAREN HELBURUA BETETZEA

Aurrekontu-orekak bilakaera hau izan du azken ekitaldian:

2015	2016	2017	2018	2019	2020
2.394.651,29	1.921.651,57	3.672.984,00	4.362.119,82	0,00	1.952.362,21
5,70%	10,69%	8,11%	14,14%	18,98%	8,78%

Hala ere, Defizit bat gertatu den ekitaldian, Diruzaintzako Remanentearekiko obligazioen finantzaketak eragin du; beraz, ondorio hori ezabatuz gero, aurrekontu-orekaren emaitza honako hau izango litzateke:

2015	2016	2017	2018	2019	2020
2.394.651,29	1.921.651,57	3.672.984,00	4.362.119,82	-3.081.145,62	1.952.362,21
Diruzaintzako gerakinarekin finantzaturako obligazioak					
0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
Aurrekontu-oreka					
2.394.651,29	1.921.651,57	3.672.984,00	4.362.119,82	-3.081.145,62	1.952.362,21
10,69%	8,11%	14,14%	18,98%	-12,59%	8,78%

F).- AURREKONTUAREN GAUZATZE-MAILA

Gastuen aurrekontua

- Gastuen Aurrekontutik %74,7a erabili dela, %71,38a konprometituta dagoela, horietatik %66,16ak obligazioa onartua duelarik, eta %58,88a dagoeneko likidaturik dagoela.
- Sarreraren egoeraren barruan, estimatutako sarreraren % 66,64 likidatu dira eta % 88,26 kobratu dira.

Azken ekitaldian, kredituen gauzatze-maila, gastu-egoeraren arabera, honako hau izan da:

	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020
Gastu baimenduak Gastos Autorizados	82,75%	89,37%	91,66%	84,78%	82,53%	79,09%	74,70%
Gastu engaiatuak Gastos Comprometidos	78,93%	87,45%	85,25%	79,26%	79,90%	72,63%	71,38%
Obligazio onartuak Obligaciones Reconocidas	76,94%	82,14%	80,38%	76,33%	68,10%	70,45%	66,16%
Pagamendu aginduak Pagos ordenados	69,26%	74,06%	71,35%	68,38%	61,19%	65,26%	58,88%
Oblig. Onart./Gastu Baimen Oblig. Rec./Gto Autor.	92,99%	91,91%	87,70%	90,04%	82,52%	89,08%	88,56%
Pag Agind/Oblig. Onart. Pag Real/Oblig. Rec.	90,02%	90,16%	88,76%	89,58%	89,85%	92,63%	88,99%

Aurrekontuan aurreikusitako kredituei dagokienez, "Gauzatua (O)" gastuaren gauzatze-maila honako hau izan da kapituluka:

		2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020
1. KAP.	Pertsonaleko gastuak <i>Gastos de personal</i>	96,24%	93,38%	99,53%	96,33%	95,19%	92,25%	92,30%
2. KAP.	Ond. arrunten eta zerb. gast. <i>Gastos bienes carr. y serv</i>	91,20%	88,40%	90,30%	85,12%	81,16%	78,86%	73,64%
3. KAP.	Gastu finantzarioak <i>Gastos financieros</i>	94,56%	47,67%	38,82%	66,76%	79,96%	77,77%	29,87%
4. KAP.	Transferentzia arruntak <i>Transferencias corrientes</i>	86,37%	87,25%	85,94%	81,25%	84,31%	86,22%	71,57%
5. KAP.	Kreditu globala <i>Crédito global</i>							
6. KAP.	Inbertsio errealak <i>Inversiones reales</i>	18,64%	26,29%	39,01%	39,01%	19,37%	59,23%	39,92%
7. KAP.	Kapital-transferentziak <i>Transferencias de capital</i>	100,00%				35,43%	2,40%	1,87%
8. KAP.	Aktibo finantzarioak <i>Activos financieros</i>		99,78%	100,00%	100,00%	100,00%	20833,33%	99,69%
9. KAP.	Pasibo finantzarioak <i>Pasivos financieros</i>	100,01%	99,84%	100,03%	100,00%	100,02%	100,01%	100,00%

Era berean, Aurrekontuan aurreikusitako kredituei dagokienez, gastu "Baimenduaren" gauzatze-maila hurrengo hau izan da kapituluka:

		2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020
1. KAP.	Pertsonaleko gastuak <i>Gastos de personal</i>	96,24%	93,38%	99,53%	96,33%	95,19%	92,27%	92,33%
2. KAP.	Ond. arrunten eta zerb. gast. <i>Gastos bienes carr. y serv</i>	93,14%	90,67%	92,91%	87,23%	83,71%	82,13%	78,57%
3. KAP.	Gastu finantzarioak <i>Gastos financieros</i>	94,56%	47,67%	41,42%	66,76%	79,96%	77,77%	29,87%
4. KAP.	Transferentzia arruntak <i>Transferencias corrientes</i>	90,85%	89,52%	96,21%	86,91%	90,79%	93,18%	77,49%
5. KAP.	Kreditu globala <i>Crédito global</i>							
6. KAP.	Inbertsio errealak <i>Inversiones reales</i>	40,53%	73,23%	82,42%	72,01%	69,32%	74,97%	70,98%
7. KAP.	Kapital-transferentziak <i>Transferencias de capital</i>	100,00%				35,43%	24,36%	4,59%
8. KAP.	Aktibo finantzarioak <i>Activos financieros</i>		99,78%	100,00%	100,00%	100,00%	20833,33%	99,69%
9. KAP.	Pasibo finantzarioak <i>Pasivos financieros</i>	100,01%	99,84%	100,03%	100,00%	100,02%	100,01%	100,00%

Diru-sarreraren aurrekontuari dagokionez, kredituen gauzatze-mailak, sarrera-egoeraren arabera, honako hauek dira:

	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020
Eskubide Onartuak Derechos Reconocidos	79,47%	92,27%	85,44%	86,84%	82,97%	62,16%	66,64%
Kobru likidoak Cobros Liquidos	91,78%	89,82%	90,57%	87,48%	89,12%	88,18%	88,26%

Bestalde, jadaneko aurrekontuko sarrera propioei bakarrik begiratzen badiegu, gauzatze-maila oso handia da:

	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020
Eskubide Onartuak Derechos Reconocidos	99,50%	103,13%	96,87%	101,42%	103,18%	103,14%	93,10%
Kobru likidoak Cobros Liquidos	91,70%	89,93%	94,30%	90,54%	89,16%	89,16%	88,78%

5.2.7.2.- KONKLUSIOAK

Txosten honetan agertzen diren datuak oinarritzat hartuta, hurrengo hauek ondoriozta daitezke:

- Aurrekontuetako partidek oreka erakusten dute gastu arrunten eta hauek finantzatzen dituzten diru-sarrereren artean.
- Bestalde, gastu arruntak -180.496,22 €-ko zenbatekoan gutxitu dira iazko ekitaldikoaren aldean. Diru-sarrera arruntak, berriz, -1.549.044,25 € gorakada dira; eta hori guztia gehikuntza gertatu delarik enplegatu publikoen ordainsariei dagokien 1. kapituluan, 471.344,22 € gehiagorekin.
- Gaur egungo egoerari mesede egiten dio zorpetze txikiak; hala ere, kreditu-eragiketa berria adostekak gure finantza-karga handituko du eta, beraz, hizpide dugun koadroa okertuko du.
- Aurrezki garbia positiboa da, 23.650,57 euroko zenbatekoan.
Iazko ekitaldian, aurrezki positiboa izan zen, 3.967.763,27 euroko zenbatekoan.
UFFFak egiten dituen ekarpenen jaitzierak baldintzatu du, neurri handi batean, 2020. urteko aurrekontuaren likidazioaren emaitzen eta aipaturiko aurrezkiaren parte bat.
- Aurrezki garbia modu nabarmenean handitu edota mantendu beharra ikusten da, eta, horretarako, beharrezkoak lirateke funtzionamenduko gastuak planifikatzeko eta murrizteko politikak.
- 10.536.642,16 euroko Gerakin Likidoa kuantifikatu da, eta zenbateko hori nahikoa da gastu orokorren finantziarioari gerakina destinatua ahal izateko.
Egoera horrek kredituak inkorporatzeko espedientea finantzatu ahal izateko aukera ematen du, iazko ekitaldian konprometituriko gastuen 2.642.908,16 €-ko saldoarekin.
- Zerbitzu berriak ezartzearekin batera ematen diren zerbitzuak estaltzeko gastuak handitzeak eta/edo zerbitzu horiek finantzatzen dituzten baliabideak geldituta edo geldituta egoteak desoreka eragin diezagukete, eta, gure zergadunen profil sozio-ekonomikoa eta gure udalerrriaren lurralde-egitura kontuan hartuta, egoera defizitarioa izango genuke.
- Komeni litzateke diagnostiko estrategiko bat egitea, udalerrian ematen diren zerbitzu eta jarduerak guztien bideragarritasun finantzarioari eta lortu nahi diren helburuei erreparatuz haiek ematea komeni den ala ez jakiteko bidea emango duena.

Lasarte-Oria, 2021(e)ko martxoaren 9(e)an

KONTUHARTZAILEAK